

K...eta!
Kitto!

2016-V-6 972 zkia.



Benito Lertxundiren “lehen kantaldia”

2016KO MODELO BERRIAK
 armazoa + erreflexuen aurkako lenteak

Ray-Ban®

139€

www.multiópticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.


Bidebarrieta, 2
 Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
 lehena zerbitzu optikoetan

Maiatzaren 2tik 12ra

Batxilergorako Eskaintza 2016-2017

Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
Artezkoa



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Ruben Plaza

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Tantanez Tantan badator, euskeriaren aldeko olatua!

Badira zortzi urte Eibarko euskalgintza *Tantanez Tantan, Eibarren euskeraz blai* izeneko ekitaldixa antolatzen hasi zala. Bertan parte hartu zeben ehundaka lagunerik esker, euskeriaren olatua Urkusutik Untzagaraiño eruatia lortu genduan. Gure herrixak sarri erakutsi izan dau euskeraz bizitzeko dakan gogua, baiña halanda be, badogu ondiok zeregiña. Horregaittik, maiatzaren 21ian, batu gaittezen danok, ikastetxiak, kirol eta kultura-taldiak, muskarixak, artistak, den-darixak, ume, gazte, guraso zeñ helduak eta egin deigun bidia!

Lortu dugu TxosnaGunea!

Bi hilabete luzeren ondoren eta Sanjuanetarako bi hilabete motz geratzen diren honetan, aurtengo San juanetan TxosnaGunea izatea lortu dogu!

Otsailaren 19an hasi ziren tira-bira guztiak, udalarekin Txosnagune duin baten alde egiten genuelako. Azkenean badirudi apirilaren 27an amaitu direla.

Bide horretan oztopoak eta aitzakiak izan ditugu bidelagun, baina aurrera jarraitu dogu **TxosnaGu-**

Lehenengo hitzordua maiatzaren 11n izango dogu, egun horretan aurkeztuko dogu aurtengo ediziñua, 18:30etan Kulturalian. Zuetako gehixenok jasoko zenduen honezkero inbitaziñua, eta zein tartetan juango zarien be erabakitta eukiko dozuelakuan gaoz. Ibilbide osua, Urkusutik Untzagaraiño, hasieratik jendez beteta egotia da aurtengo helburua, eta lortuko dogu, ziur gaoz. Maiatzaren 21ian, gantxilla esku artian hartuta eta tantanez tantan, euskeraz bizi nahi dogula al-darrikatu deigun lau haizetara!

Eibarko euskalgintza

ne duin baten aldeko borrokan; herrigunean eta herritarrekin egitea ezinbestekoa baita.

Beraz, aurtengoan Txaltxa Zelaiko Torre azpiko parkea, auditorioa eta Txikito de Eibar kalea izango ditugu TxosnaGunearen gune.

Mila esker prozesu honetan babestu gaituzten eragile, elkarte, talde eta norbanako orori! Gora jai herrikoi, parekide, euskaldun eta partehartzaileak!

Jaixak Herrixak Herrixandako

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

(-)LAKO.-Bezalakoa, modu bereko, antzeko. "Ikubilla lako kipulia".

EZ LAKO.- Parekorik ez daukana, inor ez bezalakoa. "Indurain bere sasoiñ iñor ez lako karreristia".

BESTERIK EZ LAKOA IZAN EZ.- "No ser nada del otro mundo". "Pelikula ona da, baiña ez da besterik ez lakua".

astean esanak

"Musikak kontzentratzen laguntzen dit ala kontzentrazioa galtzen? Jakina da musika horrek hitzak baditu eta ulertzen dugun hizkuntza batean ari bada kontzentrazioa zailtzen duela, burmuina letra hori deszifratzen zentratzen delako. Ordea, musika klasikoa zein instrumentala dena lagungarria dela diote burua eginbeharretan zentratzeko. Areago, hainbat ikerketek lantegietako produktibitatea hazten duela frogatu dute, langileek lana musikarekin asoziatzen dutelako, alaitasunarekin"

(MIREN NARBAIZA, ABESLARIA)

"Lan handia egin dugu 11 urte hauetan, eta lan hori babestu eta zaindu egin behar dugu orain. Gure ideiak, gainera, berritzaileak eta subertsiboak izan dira, eta gustura egon naiz subertsibotasun horretan. Ipuruia Tallarra sortzeko, Andy Warholen ideietan oinarritu nintzen. Guretzat Ipuruia ikono bat da, Liverpoolentzat Anfield estadioa denaren antzekoa: nahi dugu erromesaldi leku bihurtzea. Hona mundu osoko jendea etortzen ari da bisitan, eta eman nahi diegu eduki formalagoa. Nire ideiek talka egin dute betiko ideiekin; hala ere, nire kargu uztea ez da behartua izan"

(ALEX ARANZABAL, EIBAR FT)

"Gero eta ohikoagoa da herriz herri sortu diren Musika eta Dantza eskoletan euskal dantza irakastea. Horietan biolin, gitarra edo tronpeta irakasteko alorreko titulua behar du irakasleak. Eta euskal dantza irakasteko? Ez titulurik, ez ikasketarik; edonor izan daiteke euskal dantzako irakasle. Izan ere, Hezkuntza Sailak, euskal dantza irakasle izateko ikasketak eskaini beharrean, *habilitazioak* oparitzen ditu. Edonork egin dezake eskaera Jaurlaritzan, dantza kontuetan zer eta non ibili zaren kontatu... eta baduzu ziguilu ofiziala, Hezkuntza Sailak *habilitazioa* oparituta"

(OIER ARAOLAIZA, DANTZARIA)



LETICIA MTNEZ-ALCO CER

Banakoa jendartean

Ez dut amama gazte zeneko jendea imajinatzen "Eta nik zer egin nahi nuke neurre bizitzarekin" euren buruari galdetzen. Gaur eguneroko kezka dugun hori, orain dela hamarkada gutxi, ez zen existitzen; horren ordez, denon ongiaren nahiak bideratzen zuen patua.

Egun indibidualismoa da ezaugarri, behin funtsezko beharrak asetuta, norberaren errealizazioa bilakatu dugu buruhauste. Erritu bihurtu dugu zorion pertsonalaren atzetik korrika egitera irtetearena, askotan elastiko berdintsuekin baina bakarka. Narcisoren ispiluaren islak identitate berekioak sortu ditu, aitzinekoak baino autonomoagoak eta libreagoak aldi berean, aukeraz betetako etorkizunaren diseinatzaileak. Askotan arbasoek baino erabaki askeagoak har ditzakegu; beste zenbaitetan, ordea, egoismoaren kartzelan gaude preso. Besteak axola ez zaizkigun heinean, elkartasunaren ahalmena galtzen ari gara. Nola ez pairatu politikan eragiteko ezintasuna, uhartez osatutako jendartean irala banaiz?

Merkatuak funtsezko ez diren hamaika behar sorrarazten digun garai berekoa da adimen emozionalaren moda. Eta hura, bai, garapen errealerako baliabidea omen da. Emozioak kudeatzeko gaitasuna barik ezin ditut neure jarrerak zuzendu, eta nor bere jokabideen erantzule izan ezean, ez dago kolektibitatea sortzerik. Ni askeak oinarritzeko dira talde heldua eratzeko, eta Gu-aren kontzientzia eta enpatia, nahitaezkoak banako libreak izateko.

Udan Oporretan kamisetak salgai

Eibar-Sahara Elkartek "Udan Oporretan" programako kamisetak saltzeko postua zabalduko dau gaur arratsaldian eta bixar goizian Untzagan, jubilauren aldiaren. Ume zein helduendako kamisetak, kolore ezberdiñetan eta tamaiña guztietan 10 eurotan egongo dira salgai. Alkarteko ordezkariak azaldu dabenez, "etartzen dogun dirua udan ume gehixago ekartzeko izango da, bideokliparen kostua gainditu dogu eta". Izan be, Amasa-Villabonako Apaiz etxera 15 haur ekarri nahi dittue eta, horretarako bihar daben dirua lortzeko asmuarekin, alkatere guztiak maiatzian postuak ipiñiko dittue Eibarren ez eze Mendaron, Deban, Mutrikun, Oñatin, Bergaran, Tolosan...



-ko langabezixa-tasarekin, Gipuzkoako altuenarekin agurtu eban martxua Eibarrek. Ointxe 2.065 langabetu dagoz herrixan eta erdixa 45 urtetik gorakuak dira; 560 andrak dira eta 404 gizonak. Lan barik daguazenen %71-k ez dake mailla ertañeko edo goi maillako ikasketarik.

Errebalgo biharrekin kezkatuta

Errebalgo biharrek "geldiarazitta, oso gelduak izaten ari dirala" ikusitta, kezkatuta daguazela emon dabe aditzera Eibarko EAJ-PNV udal taldeko ordezkariak. Diñuenez, inguruko bizilagunak be kezka bera agertu detse. Horren harira bialdu daben idatzixan Josu Mendicute bozeramaillae jeltzaliak azaldu dabenez, "proiektuak hamarkada bat baiño gehixago daroia denporia gal-

tzen, eta, bittartian, Udala behin eta berriro keia saltzen aritu da. Egungo proiektua partehartze-prozesu batian adostutakua da, eta ez dogu nahi aurrekuak bezala hau be ke bihurtzia".

Gauzak holan, Obra Batzordia deitxia eskatu dabe, "azalpenak jasotzeko". Horretarako, Dragados y Construcciones enpresak Udalian aurkeztutako dokumentaziñua eskatu dabe jeltzaliak.



Errebalgo biharrek luzaruan geratuta daguazelako kezkatuta dagoz. **Silbia**

Lanak atzeratxia ez dabela ulertzen gaiñeratu dabe: "Are gehixago, inguru horrek jasan daben utzikerixak merkatarixeri horrenbesteko kaltia egin detsenian". Horretarako arrazoi posiblien artian zerbitzuen aldatxia aittatzen dabe: "Udalak 153.745 euro ordaindu zetsazen SPV Eibar Boulevard enpresari 2009xan zerbitzu-aldatxia horrengaittik, Merkatu Plaxia bihar zana baiño merkiago saldu eta gero. Ez da bidezkoa gauza beragaittik xentimo bakarra be gastatxia, eibartar guztion dirua erabillitta. Dirua zaborrera botatxia litzake".

Lan duiña aldarrikatu zan domekan

LAB sindikatuak deittuta eskualde mailako manifestaziñua egin zan domekan, Maiatzaren Lehenian Eibarren, lan baldintza duiñak eta kalidadezko enplegua aldarrikatzeko. Ekitaldi politikua eta gero, herri bazkarixarekin eta jai giruan amaittu eben eguna Untzagan.



Eskualde mailako manifestaziñuan bihargiñen aldeko eskubidiak eskatu zittuen.

Eskola babesteko eskaeria

Aurreko asteko eguenian Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina-ekin bat eginda, ekitaldi nagusixan eskoliarendako babesa eta finanziaziñua eskatu zittuen Untzagan herriko ikastetxiak eta Garagunekua.



autuan

1948 URTEKUEAN AFARIXA

Ekaiñaren 11n Chalcha jatetxian afarixa egingo dabe 1948. urtian jaixotakuak eta jai nahi dabenak ekaiñaren 7rako 60 euro sartu biharko dittu Euskadiko Kutzako 303500/88/0781031811 kontu zenbakixan, izen abizenak zihetzuta.

LIBRE EGUNA

Maiatzaren 14an Eibarko Libre Eguna egingo da, eguardittik abiatuko dan programari jarraituta: 12:30xetan Untzagatik trikipoteuan abiatuko dira; 14:00xetan T. Etxebarriako eskillaretan taldiarene erretratua etarako dabe eta 14:30xetan Untzagako arkuipietan herri bazkarixa egingo da (tiketak 10 eurotan salgai Beleko, Buenos Aires eta Deporren, aukera begetarianua be badago); arratsalderako mahai-ingurua preparau dabe, "Mozal legiaren" gaiñian berba egitteko; 19:00etan manifestaziñua egingo da Untzagatik gaztetxera eta gabian kontzertua emongo dabe Issuna, Los W.C., Patx&Run eta Patxadaz taldiak.



Euskara Elkartea

Urkizu pasealekua 11, solairuartea
 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 20 09 18
 elkartea@etakitto.eus
 www.etakitto.eus

M A I A T Z A

						1	
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

E K A I N A

		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30				

U Z T A I L A

						1	2	3
4	5	6	7	8	9	10		
11	12	13	14	15	16	17		
18	19	20	21	22	23	24		
25	26	27	28	29	30	31		



2 0 1 6 k o
 maiatza-uztaila

**kultur
 eskaintza**

...eta kitto! Euskara Elkartea




...eta kitto!ko bazkide eta berbalagunen oharra

Datorren maiatzaren 21ian, zapatua, euskalgintzako taldiak urte birik behin antolatzen daberen Tantan ez Tantan ekitaldixa izango da: "Eguardiko 13:00ian Urkizuko iturririxan gantxilla bete eta eskurik eskura, giza kataia osatuta, Untzagariño erungo dogu. Aurten, ibilbidia, tarte txikixetan banatu dogu eta ...eta kitto! Euskara Elkarte-ari Urkizuko iturririx eta kioskuaren arteko tartia egokitu jako. Gure bazkide eta berbalagunak ...eta kitto!-ren tartian parte hartzea gonbidatu nahi dittugu. Gurekin etortzeko asmoa badaukazue, elkarte@etakitto.eus helbidera idatzi edo 94320019 telefonora deitu, maiatzak 10 baino lehen, eta zenbat lagun etorriko zaien ziheztu". Egun horretan 12:30xetarako baxotxa dagokion tartian egon biharko da, eta aurten, kuadro dun zapixaz gain, arropa urdiña jantzita eruatia eskatu dabe antolatzailliak (jertsia, kamisetia, txamarra...).

Santa Kurutzeko jaixak asteburuan

Martitzenian izan zan Santa Kurutz egunari eskindutako jaixak ospatzen jarraituko dabe asteburuan: bixar 10:30xetan ekingo detse egunari, kanpai-errepikarekin. Goizian zihar mezia, hamai-ketakua, trikilarixak, umiendako jolasak eta auzoko gaztien arteko herri-jolasak egingo dira, bazkaltzeko ordua aillegau arte. Eta domekan be goizetik hasiko dira ekitaldixak, 10:00etan Urkizuko iturririk Santa Kurutzera igotzera animatzen diranendako ipiñi daberen hitzorduarekin. 11:00etan, barriz, Santa Kurutzeko ermittan meza nagusixa ospatuko dabe, Eibarko Kantuzaleak abesbatzak lagunduta. Horren ostian piskolabisa egingo dabe, Mugi Panderoa erromerixa taldiak girotuta eta eguardixan Kezka dantza taldiak eta Usartza txistulari bandak soka-dantzia gidatuko dabe. Horrekin batera, auzoko animalixak erakusteko ferixia antolatu dabe aurten.



Denok Eibartar

Udalaren Inmigraziño Saillak "Denok Eibartar" arrazakerixa eta xenofobiaren kontrako kanpaina ipiñi dau martxan, jendia gaixaren inguruan sensibilizatzeko asmuarekin: "Helburua 'Denok eibartarrak' garala aditzera emotia da, hau da, etorkiñak be hamenguak dirala azpimarratzia eta herrigintzan parte hartzen dabela onartzia, azken batian". Horretarako postalak eta bideua sortu dittue.

MAIATZA

Maiatzak 7, zapatua:

Flysch-era irteera berbalagunekin.



Maiatzak 11, eguaztena:

Ipurterre Ipuin Lehiaketako sari-banaketa, 10:00etan Hezkuntza Esparruan. Txoborro magoaren ikuskizuna.



Maiatzak 20, barixakua:

Udaberriko jolasak guraso berbalagunentzat. 17:30ean ...eta kitto!-n.

Maiatzak 21, zapatua:

Tantan ez Tantan euskeraren aldeko ekitaldia, Urkusun hasita 13:00etan. Horrekin batera, Gurasoak Berbetan eguna, guraso berbalagunak elkarrekin bazkaltzeko.



Maiatzak 24, martitzena:

Illunabarrian programaren barruan, "Ortuak balkoian" hitzaldia, EHNEren eskutik, 19:00etan ...eta kitto!-n.



Maiatzak 29, domeka:

Ibilaldia-ra autobusak (Durango). 09:30ean irten. 19:30ean itzuli.

EKAINA

Ekainak 15, eguaztena:

"Munduko musikekin bertsotan". Oskar Estangaren eskutik. Rugby taldeko karpan, 20:30ean.



Ekainak 16, eguena:

Gurasoak Berbetan: "Plaza bete poz" ikasturte amaierako jaialdia. Urkizuko parkean, 17:00etatik aurrera.



Ekainak 17, barixakua:

Berbetan egitasmoko partaideentzako ikasturte amaierako afari-merienda. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Ekainak 19, domeka:

Euskal Jaialdia herri-kirol erakustaldia. 19:30ean Untzagan.



Ekainak 19, domeka:

Araba Euskaraz-era autobusak (Agurain). 08:30ean irten. 19:00etan itzuli.

Ekainak 23, eguena:

San Juan sua, 23:00etan Untzagan. Dantza Garaikidearen ikuskizuna.



UZTAILA

Uztailak 20-21-22:

Euskeraz Primeran! kanpainaren txokoa Factoring-ean.

TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Haur errefuxiatuerei laguntzeko "expo-outleta"

Errefuxiatuerei laguntzeko asmuarekin, HOTZ alkartekuk "Expo-outlet" izeneko ekimena preparatzen dabilta ekaineko (3tik 19ra bittartian egitteko). Asmua lagundu nahi daben artistak bere lanak dohaintzan emotia da, gero jendiari "outlet" prezioan erosteko aukeria emoteko. Hórrek salduta batzen daben diru guztia "umieri ilusiño solidarixoz betetako motxilak bidaltzeko" erabiliko dabela emon dabe aditzera.

Lanak dohaintzan emoteko epia maiatzaren 23tik ekainaren 1era arte egongo da zabalik: nahi dabenak Arrate Kultur Elkartearen buleguan eukiko dau bere

lana lagatzeko aukeria, goizez 10:30xetatik 12:30xetara (astelehen, martitzen eta eguenetan) eta arratsalde, barriz, 17:00etatik 19:00etara (eguztenetan). Bestalde, donaziñuan emoten dan lanarekin batera txarteltxo bat (10x7 zm) entregatzia eskatzen dabe, egilliaren izen-abizenak, telefono zenbakixa, erabilittako teknikia eta lanak balixo dabena ipiñitta (egilliak markatzen daben prezio horri %50 edo %75-ko deskontua aplikauko de-

EXPO-OUTLET

Ekainak 3-tik 19-ra

Eman dohaintzan zure eskulana bete motxila solidariorak ilusioz !

Ingururu zaigun Krisi Humanitarioa ezagutzen dugu. Europar errefugiatuak ez zela uste guren agerri biltzen arri gero. Egunero berriekin ikusten ditugu geroarengandik igesi elorriko hainbat UME, hainbat famli babesk gabe. Zer egin dezakegun galdetzen ditugu gure buruari. Lagundu diezakegun, gure elkartzasuna adieraziz.

Ekimen hau bako da, baina babes biko dabilzan umeen irripaio mantentzea da helburua. Artistak ezabardinek dohaintzan emandako lanak OUTLET prezioan erosteko aukera paragabea. Biltzen den diru guztia, umei ilusioz beteriko motxila solidariorak bidaltzeko izango da.

DOHAINZAN EMATEN DIREN LANAK AURKEZTEKO EPEA, MAIATZAK 23 tik - Ekainaren 1 era

Arrate Kultur Elkarteo BULEGOAN, bulego ordutegian
 10:30 - 12:30 Astelehen, Astearte eta Ostegunetan GOIZEZ
 17:00 - 19:00 Asteazkenetan, ARRATSALDEZ

Lanak txartel bat alant bakoitza duela 100x70 mm bitaba. Berton, egilearen izen eta abizenak, telefonoa, helbidea eta bere baliok agerri behar da. Egileak markatzen duen prezio horri, outlet deskontua agerri izateko (%50 edo %75). Saltzen ez diren lanak egileari bueltatzeko zaitziko.

TOPALEKURA
 Arrate Kultur Elkarteo
 Zuloagatarren,3
 EIBAR

HOTZ BERGARA
 facebook HOTZ
 689020823

tse). Saltzen ez diran lanak, bestalde, egilliari bueltatuko jakoz.



Leire Iturbe

Legarreko bertso bazkarixa

Edarto pasau eben aurreko asteburuan Legarre Gain alkar-teko bertso bazkarira gerturatu ziranak: zahar eta gazte, danak alkarrekin barrezka emon eben bazkalosteko tartia, umore onian, Legarreko Jai Batzordiarene eskutik Jokin Bergara eta Manu Goigana bertsoariak eskindu eben sauiari esker.



Oin dala 100 urteko Eibarren pasiatzen

Armazintzaren Museuak aurten be bat egingo dau 38. Museuen Nazioarteko Egunarekin eta, horretarako, maiatzaren 15etik 22ra bittartian garatuko diran hainbat jarduera preparau dittue. Aurtengo goiburua "Museoak eta Paisaia Kulturala" izango dala kontuan hartuta, Eibarko Museuak bisita gidatu bi antolatu dittu: "Oin dala 100 urteko Eibartik zihar pasiatzen" izenburuari jarraituta, Nerea Alustizak gidatuko dittu domeka bixetako bisitak, maiatzaren 15ian 11:30xetatik aurrera euskerazkua eta 22xan, barriz, gaztelerazkua. Informaziño gehixagorako armia-eibar.eus helbidian begiratu edo 943 708 446 telefono zenbakira deittu.

Martxoan Eibar kirol elkarteak Bartzelonaren kontra norgehiagoka jokatu zuenean eman zuten ezagutzera AFESD, diagnostikorik ez duen gaixotasunen bat duten umeen familien eskutik sortutako elkarte. Egun hartan paella-jan solidarioa antolatu zuten elkarte ezagutzera eman eta dirua batzeko eta asmo berarekin egingo da hemendik astebetera Zumbathon solidarioa bigarrenez, oraingoz gure herriko familia bik osatzen duten elkarteari laguntzeko. Esti Blanco familia horietako baten amak azaldu dizkigu elkartearen nondik norakoak.



Ibaik bi urte bete ditu eta lau hilebete zituenetik zein gaixotasun duen bilatzeko probak egiten dabiltza.

ESTI BLANCO (AFESD elkartekoa):

"Arraroa izateaz gain, gaixotasunak izenik ere ez dauka"

- Zeri esaten zaio "diagnostikorik ez duen gaixotasuna", zertan bereizten da arraroak diren gaitzetatik?

Berez gaixotasun arraroa ere bada. Baina, kasu honetan, arraroa izateaz gain izenik ere ez dauka, ez diote ipini oraindik ez dutelako aurkitu zein gaixotasun den edo zerk eragiten duen.

- Nola edo noiz konturatu zineten zuen semeari zerbait gertatzen zitzaiola?

Lau hilabeteko errebisioan pediatria gauza batzurekin konturatu zen: buruari eustea kostatzen zitzaiola, extrabismo handia

zuela, bere irribarrea ez zela oso soziala... Hortik aurrera zer gertatzen zitzaien bilatzeko probekin hasi ginen eta horretan gabiltza oraindik ere: bi erresonantzia, analitikak, puntzioa... 2014ko abenduan egindako DNA probaren emaitza berriki eman digute, baina hala ere ezer ez dago argi. Ibaik urte bi bete ditu eta oraindik ez dakite zer gertatzen zaion, zergatik, aurrera begira zer etor litekeen... Eta beste umearen, Aroaren kasuan gauza bera gertatzen zaie.

- Nolatan elkartu zarete familia biak?

Aurretik ere elkar ezagutzen genuen,

biak Amañan bizi gara eta. Ume biek arazo bera zutela ikusita, bat egin eta elkarte eratu genuen. Oraingoz gu bakarrik gaude, baina gure moduan dauden guztientzat atea zabalik dauzkagu. Gurekin kontaktuan ipini nahi duenak emaila idatzi dezake (afesd@outlook.es) edo, bestela, 659 124 703 telefono zenbakira deitu. Niretzat lagungarria izan da beste familiarekin batzea eta berba egitea. Aroak 6 urte ditu eta nik bizitako gauzetako asko eurek aurretik pasatu dituztenez, euren esperientziaren berri izateak beti laguntzen du.

II. Zumbathon solidarioa maiatzaren 14an

Astelena frontoian egingo da bigarrenez antolatu duten Zumba maratoni solidarioa, 11:00etatik aurrera. Iazko moduan, Nerea Blasco eibartarraren ekimezez egingo den ekitaldian adin guztietako jendeak har dezake parte, baita aurretik zumba edo dantza kontuetan sekula ibili barikoak ere. Izan ere, dantza saioa gidatzeko monitoreak egongo dira eta, gainera, hainbat enpresa eta dendaren laguntzari esker parte hartzen dutenen artean opariak zozketatuko dituzte. Dantzarako musika ipintzen oraingoan Rubenek jardungo du. Sarrerak aurretik erosi nahi dutenek Ibone estetikan (R. Galdos, 10), Gurbil jatetxean (Zezenbide, 1) eta Adhara zentroan (Elgeta-kale, 2 AC) dauka horretarako aukera eta, bestela, egunean bertan ere frontoiko txarteldegian egongo dira salgai. Prezioa 8 eurokoa da (doan 10 urtetik beherakoentzat) eta batzen den diru guztia AFESD elkarteari emango diote, Osakidetza kanpora behar dituzten zerbitzuek eragindako gastuekin laguntzeko. Jende guztia parte hartzera animatu nahi dute, "ondo pasatzeaz gain elkarteari lagunduko diote eta". Informazio gehiagorako www.facebook.com/ZumbathonEibar/ helbidean begiratu dezakezue.



Elkarteko beste familia sei urteko Aroarena da. Argazkian, bere nebarekin.

29 BIEMH

YOU MAKE IT BIG

SMART SOLUTIONS

2016ko

MAIATZAREN 30etik


EKAINAREN 4ra

Konponbide aurreratuak
eta negozio adimendunak
zure enpresarentzat

ADDIT3D by BIEMH

FABRIKAZIO
GEHIGARRIAREN ETA
3DREN NAZIOARTEKO
AZOKA

Laguntzaileak:



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



ASOCIACION DE IMPORTADORES
DE MÁQUINA - HERRAMIENTA

Antolatzaileak:



Advanced
Manufacturing
Technologies

www.afm.es



www.biemh.com

EXPOSSIBLE!

10 urte eta gero... berriro taula gainean

10 urtetan taula gainera igo gabe egon ondoren, bizi-bizirik aurkitu dugu joan den urtetik aurrera berriro martxan dagoen Narruzko Zezen Taldea. Aurtengo Eibarko Antzerki Jardunaldietan parte hartu dute, eta atzo, eguena, berriro izan ziren Hezkuntza Esparruko eszenatokian "Objetos perdidos" antzezlarekin, Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barne. Taldearen nondik norakoak jakiteko astelehenean izan zuten entsegu hasi baino lehen bisitatu genituen.

Ricardo Martín ermuarra medikua da ofizioz. Antzerkiarekiko grinak bultzatuta, joan den urtean Narruzko Zezen antzerki taldea "berpiztea" lortu zuen. Gaztetxoaren zenean, Batxillergo Hezkuntza Esparruan egiten ari zenean, ezagutu zuen Rickyk Narruzko Zezen taldea, baina une hartan ez zen taldean sartu. Geroago eman zuen pausoa, medikuntza ikasten hasi zenean. 3 edo 4 antzezlari egin zituen Narruzko Zezenekin, baina apurka-apurka taldea desegiten hasi zen. Hala ere, urte guzti hauetan taldeko beste batzuekin batera, Jardunaldietan eta eskolarteko erakusketan beste lan batzuk egiten jarraitu du (muntaiak, takilak, antolaketa...). Narruzko Zezen taldea 60ko hamarkadan sortu zen eta nagusiki Uni-ko ikasleek elikatu dute taldea.

Ricky-k azaldu digunez, "joan den urtean, nire taldean egon zen neska batek bultzatuta, Uni-ko tabloian taldea berriro sortzeko iragarki bat jartzera joan ginenean ikusi genuen erresidentzian dagoen ikasle batek jarritako beste ohar bat zegoela. Kasualitatea izan zen. Madrilgo gazte batena zen, berak ere antzerkia gogoko zuen eta horretan jardun nahi zuen. Juan Aldairen birtartez berarekin harremanetan jartzea lortu nuen. Horrela, iaz 7 edo 8 kide elkartzea lortu genuen. Antzezlari bat aukeratu genuen baina oso berandu zen Antzerki Jardunaldietan aurkezteko, proiektua oraindik heldu gabe zegoen". Aurten horietako 4 ikasle joan egin dira eta besteek jarraitu egin dute. Jende gutxiago egonda, obra hura egitea ez zen posible eta oraingoa aukeratu zuten, "Objetos perdidos", hain zuzen ere. Orain guztira 5 dira, Ricky eta Uni-ko 4 ikasle. Neska bat berria da. "Beti daukagu laguntza asko. Aspaldi Narruzko Zezen-en zeudenak ez dute antzezten baina laguntzen



Behean, ezkerretik eskumara Marina Villalante, Marawan Dubois eta Shelby Nsang. Goian, Asier González, Manolo Murillo eta Ricardo Martín.

digute zuzendaritzan, argiak ipintzen... Esate baterako Manolo Murillo Coliseo Antzerki koordinatzailea da eta berak zuzendaritzan laguntzen digu, eta Juan Ortega ere noizbehinka laguntzera etortzen da. Azken finean, betidanik antzerkigintzarekin harremanetan egon diren pertsonak dira, eta esperientzia handia daukate", esan du lan honetan antzezle eta zuzendari lanak egiten dituen Ricky Martínek.

Energia Berriztagarrietako ikasleak

Beste partaideak ikasleak dira, 20 urte inguru dituzte eta Energia Berriztagarrien goi mailako gradua ikasten dihardute Hezkuntza Esparruan. **Marina Villalante** eta **Asier González** bilbotarrak dira, eta asteburuero Bilbora joaten direnez, entseguak astebarruan egitea erabaki zuten. **Marawan Dubois** franko-egipziarra da baina Madril bizi da. **Shelby Nsang** afrikarra da, Gineakoa. Marawan-ek aukera gehiago dauka Madrilera noizbehinka joateko baina Shelbyrentzako ez da hain erreza.

Azken urteetan hezkuntza sistemari izandako aldaketak direla eta, kanpotik etorritako ikasleen kopurua asko txikituta da. Uni-an aspaldi "interno" asko zegoen, injenieritzak egitera Estatuko leku guztietatik etortzen ziren Eibarrera. Gaur egun, injeniaritza hauek leku askotan ematen dira eta, ondorioz, hemengo eskaintza eta ikasle kopurua txikituta joan da. "Orain,

Energia Berriztagarrien fakultatearekin daukagu aukera bat jarraipen hori lortzeko. 4 urteko karrera da, eta bigarren ikasturtean antzerki taldean sartzen badira 3 urte egoteko aukera daukate", azaldu digu Ricky-k. Energia Berriztagarrien injenieritza mota hau Estatuan dagoen bakarra da eta ikasleak erakarri egin ditu. Bestalde, orain Batxillergo motzagoga da eta jendeari ez dio denborarik ematen taldea ezagutu eta bertan sartzeko. Dena dela, Ricky-k azaldu digunez, "taldea guztiz irekia da, nahi duten guztiek, gazte zein nagusik, hartu dezakete parte taldean".

Marawanek, Narruzko Zezen-en hasi baino lehen, Madril antzerkigintzarekin harremana izan zuen, Liceoan tailer batzuk egin zituen-eta. Besteentzat, berriz, esperientzia berri da. Obraren izena "Objetos Perdidos" da. Antonio Muñoz de Mesa-rena da eta helduentzako pentsatuta dago. 4 pertsona gauza galduen denda batera heltzen dira galdu duten objektua berreskuratzeko asmoz. Apurka-apurka euren artean ezagutzen doaz, bakoitzak izakera oso desberdina dauka, liskarrak eta laguntzak sortzen doaz, eta azkenean konurtzen dira galduta zeukatzen objektua berriak zeramatela, ez zutela galdu. Azken momentuan ezusteko handia dago. Antzerki Jardunaldietan oso harrera ona izan zuten eta horregatik bigarren eskaintzea erabaki zuten.

Euskararen Transmisioa VI. Mintegia



Euskarak denon konpromisoa behar du

Konpromisoa, grina, integrazioa, ikuspegi estrategikoa edo motibazioa bezalako hitzak entzun genituen maiatzaren 3an Portalean izandako Euskararen Transmisioari buruzko Mintegian. Han bildutakoek arretaz entzun zituzten hizlariak esandakoak eta giro bikaina sortu zen batutako guztien artean.

Transmisioari buruzko mintegiaren 6. edizioaren oso balorazio positiboa egin du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Transmisioaren gaia ikuspegi desberdinetatik lantzen saiatu dira elkartetik eta badirudi asmatu dutela. Parte-hartzaile ugari –inoiz izan den izen-ematerik altuena izan baita– eta askotarikoak izan dira, eta hauen balorazio-orriak ikusita, motxila ideia, hausnarketa eta gogoz ondo beteta itzuli zen jendea etxera.



"Gazteek ez dakite euskara hizkuntza gutxitua dela" goiburua izan zuen UEMAko **Xabi Aizpuruaren** hitzaldiak. Aizpuruak argi utzi zuen transmisioa ezinbestekoa dela euskararen biziberritzean. Bere esanetan, "eskola ez da nahikoa, eremu asko dago eta familiaren eragina oso inportantea da".



Herri euskaldunetako DBHko ikasleekin ikerketa egin du Aizpuruak, gaztetxoaren buruetan zer dagoen aztertu du, eta ondorio nagusia da gazteek ez diotela euren buruari planteatzen euskara hizkuntza gutxitua dela eta desbentajan daudela. Oro har ez dira kontziente. DBHko 10 ikaslelik 4k uste dute euskara hizkuntza gutxitua dela. Gazteen artean ez dira lantzen soziolinguistikari buruzko gaiak (elebitasuna, diglosia...) eta hori akats handia da.

"Gazteek ez dakite euskara hizkuntza gutxitua dela baina gizarteak ere ez daki. Eskolan landu beharreko gaia da, azken finean eskola baita euskararen transmisioaren motorra (hiztunen %80k eskolan ikasi du euskara). Ahalegin berezia egin behar dugu hizkuntza gutxiatua delako. Kontzientzia hartzea oso inportantea dela esaten badiegu, gehiago jakingo dute. Interpretatzeko erramintak eman behar dizkiegu DBHko ikasleei. Gurasook ere paper inportantea daukagu guzti honetan, grina atera behar dugu gurasook euskara transmititzerakoan", esan zuen Aizpuruak.

Estitxu Garai publizista eta EHUko irakasleak euskararen marka irudia eta marka nortasunari buruzko gogoeta egin zuen. Lehenengoa guk kontrolatu dezakegun guztia da: identitate korporatiboa, logotipoa, eskaintzen dugun produktua... Eta bigarrena, "marka irudia", beste gauza bat da eta sekulako garrantzia dauka: jendeak buruan duena, nola ikusten gaituzten, hain zuzen ere. Beraz, esperientziak lotutako zerbait da. Publizistek etengabe biak berdintzeko ahalegina egiten dute, eta horri markagintza edo branding-a deitzen diote. Estitxuren esanetan, "balio batzuen gaineran erabaki behar da euskararen markagintza. Mundu globalean kokatu behar da euskara. Eta horretarako gutxieneko gizarte akordio bat egin behar da. Diskurtso egituratu bat behar da, eta sinesgarria, ezberdina eta erakargarria".



Motibazio ideologikoak inportanteak dira hizkuntzaren ikuspegitik baina are gehiago sinbolikoak eta erreferentzialak. "Gertutasuna, bertakotasuna, konfidantza, herriaren izaera... baliabide sinbolikoak dira eta hauek hizkuntzaren bidez lor daitezke, guzti hau markaren eraikuntzaren parte da. Euskarak aktibatu ditzake konnotazio guzti hauek soilik erabilia. Gainera euskara gazteekin eta modernotasunarekin lotuta dago. Hau guztia diskurtsoan txertatu behar dugu".

Erakundeek eta eragileek hausnarketa bat egin behar dutela esan zuen Garaik, "diskurtso hori proiektatzeko, denon artean ikuspegi estrategikoa egiteko eta, azken batean, euskararen marka eraikitze".

Jon Maia bertsolariak bere bizipen pertsonalaren gainean hitz egin zuen. Bere familiaren jatorria (aita Zamorakoa eta ama Extremadurakoa) disimulatzen zuela aitortu zuen Maiak:

"Abizenak esaten zirenean gaizki pasatzen nuen nik. Lotsa ematen zidaten nire aitaren eta amaren abizenek. Bertsotan ere saiatzen nintzen estaltzen nire jatorria. Nire gabetasun linguistikoarekin egin behar izan nituen lehen bertsokak eta trantzetik ahal nuen bezala irten behar nuen. Lehen txapela irabazi eta gero gurasoei ez nien utzi jende aurrean ni zoriontzen, ezkututzen ibili nintzen. Obsesioa estaltzea zen".



25 urterekin hasi zen Jon Maia bere buruari galdetzen "zergatik matrikulatzen duten euren semea ikastola batean zamorano eta extremeña batek. Ikastolak popularrak zirelako, herritik jaiotakoak, eta nire gurasoek ekarritako kontzientziarekin bat egiten zutelako".

Maiaren ustetan, "gaur egun integrazio linguistikorako protokolorik ez badago, pentsa Francoren garaian etorri ziren horientzat..., bi komunitate kulturalak ez dira elkartu. Orduan etorritakoek ez dute euskara ikasi baina euren bilobek egiten dugu eta euskararen etorkizunaren parte gara".

Etxe erregionalekin elkarlanean dabil azken urteetan Jon Maia eta beti Euskal Herriarekiko esker ona azaldu diotela esan zuen. "Euren biloba guztiak dakite euskara, euskararen ekosistemaren parte dira eta hurbilpen eta zubigintza egin behar dugula uste dut. Dena dela, estrukturaliki oraindik bi mundu garela uste dut". Elkar ezagutzea ezinbestekoa jotzen du: "Gu gara gutxiak, guk lortu behar ditugu hiztun berriak, guk daukagu beharra. Gaurko emigranteak gureganatu behar ditugu. Lehengo akats berak egiten ari gara. Jarrera enpatikoa beharrezkoa da lehengo eta gaur egungo emigranteekin. Integrazioarako bide zuzenena da euskara. Elkar ezagutzea beharrezkoa da, hortik hasten da dena. Ez ezagutzeak sortzen duen beldurra gainditu beharra dugu, eta lehen egindako akatsak (mesfidantza, klitxeak...) gainditu".

Donostiako Bagera elkarteko **Aitziber Gurutzeagak** "Egian euskaraz bizi nahi dugulako" proiektua azaldu zuen martitzenean Portalean izandako mintegian. Auzoko eragileei deitu zieten eta ezer baino lehen diagnostikoa eta plangintza egin zuten eskola barruan eta auzoan bertan. Helburua Egiako euskaldunak ahalduntzea zen. "Astebetez euskaraz bizitzea proposatu genien, eta jolas bat bezala planteatu genuen. Horretarako aholku batzuk eman genizkien: beti ere iribarrea erabiltzea (agian iribarreak izan behar du euskararen marka), lehen hitza beti euskara izatea, euren portaera inoiz ez justifikatzea... Guztira 8 astetan 170 lagunek jardun zuten, eta 63 eragile izan ziren. Zalantzarik gabe kontzientzia ariketa garrantzitsua izan da, txipa aldatzeko balio izan du".




Elizabeth Lema Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxeko irakaslea da, eta bere lan orduetatik kanpo guraso talde bati euskara klaseak ematen dizkio. Bere esperientziaren berri eman zigun: *"Guraso batzuk eskola eta etxearen artean jarraipen bat egon behar zuela ikusi zuten eta ikastetxera etorri ziren euren dako euskara eskolak eskatzera. Txikitan ikasitakoa berreskuratu eta euren seme-alabei etxeko lanekin lagundu nahi zieten, eta kasu batzutan zerotik hasi ziren, ezer jakin gabe".*



Eliren esanetan motibazioa da guraso hauek daukatena, ikasteko gogoia, hain zuten ere. *"Gurasoak ostegunetan etortzen dira klasera, seme-alaben eskola orduetan. Askok ikasten ari dira, lotsa galdu dute eta ikasitakoa erabiltzen hasi dira dagoeneko. Euskara hitz egiten dutenetik haurrak zoriontsuago daude. Oso pozik gaude eta hurrengo ikasturtean esperientzia honi jarraipena eman nahi diogu, baina, zoritxarrez, ez dago gure esku".*

Eibarko San Andres ikastetxeko **Juani Iriando** ikasketa buruak eskolan martxan jarritako Eusle metodoari buruz egin zuen berba. Euskararen erabilera bultzateko zerbait egin behar zutela argi zeukaten eta horregatik animatu ziren programa hau martxan jartzera.



"Eusleak dira plangintza horren oinarriak, eusleak beti euskaraz hitz egin behar dute, nahiz eta berari gaztelaraz egin. LH3 eta LH6 bitarteko ikasleekin jardun dugu. Argi genuen borondatezko zerbait izan behar zela, baina haur asko apuntatu ziren. Logoak eta kamisetak atera genituen eta prestigio zuen zerbait zela azaldu genien. Denek nahi zuten eusle izan, horregatik astelehenean erabaki egiten genuen zeintzuk izango ziren aste horretako eusleak eta euren argazkiak kortxoan jartzen genituen. Ostiralean hausnarketa egiten zen. Euslearen erabakiak eragina du euskararen erabileran. Zenbat eta gehiago hitz egin besteek ere gehiago egingo dute. Iruditzen zaie eusle izatea ona dela, positiboa". Bideo batean San Andres ikastetxeko ikasleen iritzia entzun ahal izan genituen: beraien esanetan eusle izateak lagundu egin die euskaraz gehiago hitz egiteko eta euskara salbatzeko konpromiso bat hartzen dutela argi daukate.



Deñe Zabala Elgoibarko Ikastolako Guraso Elkartearen kidea da, eta horren baitan sortutako euskara taldearen berri eman zuen. 2014an sortu zen euskara taldea, 8 kide dira eta hilean behin biltzen dira. Euren erronkak dira gurasoen artean motibazio ekintzak bultzatzea eta euskararen erabilera ahalik eta handiena izateko gurasoen arteko harremanak aztertzea. Eskolako

sarrera eta irteeran guraso asko pilatzen zirela ikusita, kartel handiak jarri zituzten eskolan bertan "izan ispilu umeentzat",

"haurrak euskaraz ari dira, eta zuek?" bezalako mezuekin. Euskara taldeak egiten dituen jardura guztietan ere kartel hauek erabiltzen dituzte. Deñek azaldu zuenez, *"ekainean, ikastolaren egunean, euskararen erabileran eragiteko bi gune jarri genituen. Konpromiso bat eskatzen genien gurasoei, joku baten bitartez. Konpromisoa hartzen zutenei piruleta bat ematen genien. Giro polita sortu genuen eta 682 pertsonak hartu zuten euskara erabiltzeko konpromisoa. Berripapera ere badaukagu, euskara hutsean, eta gurasoen whatsapp taldeetan ere eragiten saiatu gara. Errezeta bat ere egin genuen euskararen egunean. Lanean jarraitu behar dugu eta gure asmoa euskara taldean ikasle eta irakasleak ere sartzea da".*

KONTSUMO ARDURATSUAREN I. ASTEA EIBARREN

2016ko maiatzaren 9tik 14ra

Antolatzaileak



ALDATZEN

Babeslea



Kolaboratzaileak



by muxeteporolobat

Julen Pato (Galiziako As Burgas kultur etxekoa):

“Galiziako kultura Euskadin ezagutzera eman nahi dugu”

Julen Pato eibartar gaztea, orain dela 13 urte, “Os Galaicos” dantza taldeko kidea da, eta baita Galiziako “As Burgas” kultur etxekoa ere. Lan Harremanak karrerako azken urteko ikaslea da, goizez klasera joaten da eta arratsaldez praktiketan ibiltzen da. Asteburuetan, berriz, herriko taberna batean egiten du lan. Guztiz lanpetuta egon arren, Os Galaicos-en entseguetara joatea gustatzen zaio. Asteburu honetan, Eibarren Galiziako jaiak ospatuko ditugunez, Julen apurtxo bat ezagutzeko aprobetxatu dugu.



- Noiz eta nola hasi zinen As Burgasekin harremanetan?

Orain dela 13 urte lagun bat dantza taldean sartu zenean ni animatu ninduen, eta horrekin batera As Burgas kultur etxerekin ere jarri nintzen harremanetan.

- Zer egiten duzu bertan? Ailegatzaren zara?

Gehien egiten dudana gauza As Burgasen bertan dugun taldean egotea da baina orain dela lau urte gutxi gorabera elkartearen zuzendaritza batzordeko kidea naiz. Egia esanda, aurrean lanarekin eta gradu bukaerarekin ez dut betiko harremana izan, baina ahal dudana neurrian bileretara eta Os Galaicosen entseguetara etortzen naiz. Barixakuetan izaten dira.

- Zer jarduera prestatzen dituzue jendearentzat?

As Burgasen jarduera asko prestatzen dira jendearentzat urtean zehar. Urtero egiten diren jardueren artean daude: umeentzako marrazki eta mozorro lehiaketak, enpanadaren eguna, Galiziako festak, magostos (gastainerre), kultur etxeko kideentzako ibilaldiak, taldeko umeentzako txangoak, tute eta mus lehiaketak, eta kolabora-

zio asko. Adibidez, festetan Eibarko trikitilariarekin batera abesti batzuk prestatzen ditugu, Memorial Otxoarekin, etab. Azkenean gure helburua apurka-apurka lortzen dugu.

- Zein helburu duzue As Burgasen?

Orain dela urte batzuk Galiziako pertsona asko Euskadira emigratu zuten, eta horren ondorioz bi kultura ezberdin nahastu ziren. Gure helburua ideia bakar batean laburbildu daiteke: Galizako kultura Euskadi mailan ezagutzera ematea eta Euskadi eta Galiziako kulturen nahasketa mantentzea.

- Jende gaztea animatzen da parte hartzen?

Erraza izan ez arren, badugu erreleboa; gazteenek denborarekin gero eta gogo handiagorekin parte hartzen dute dantza eta musika ekitaldietan. Gazteak animatzeko dugun arazo handiena da taldeak erantzunkizun handia eskatzen duela, eta honen denbora asko kentzen duela, batez ere ekitaldiak gertu direnean. Baina gogoarekin hartzen baldin baduzu eta jendearekin harreman ona baldin baduzu oso erraza da urteak igarotzea taldean zein elkartean.

Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelerratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Sanjuanetarako laguntzak eskatzeko prest

San Juan jaietarako gazte koadrilei ematen zaizkien diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela eman dute aditzera Udaleko Kultura Batzordetik. Gogorarazi dutenez, "ez dago ez adin mugarik, ez koadrila bakoitzeko kide kopuru mugarik. Hori bai, koadrilen izenak eta kamisetetako esloganak edo mezuak euskaraz izan behar dira".

Eskaera egiteko honako pauso hauek jarraitu beharko dituzte gazteek: kamisetak, instrumentuak edo bestelakoak erosiko diren dendetan aurrekontua eskatu beharko dute;

aurrekontuan enpresaren izena, telefonoa, helbidea, posta elektronikoa eta IFK agertu beharko dira, zer erosiko den eta zenbateko kostua (BEZ barne) izango duen zehazteaz gain. Baldintza horiek betetzen dituen aurrekontua eskuan, taldearen izena eta ordezkariaren izena eta kontaktua Kultura Saillean (Portalean, 1. solairuan) entregatu beharko dituzte edo, nahiago izanez gero, posta elektronikoki bidez kultura@eibar.eus helbidera bidali.

Eskaerak jasotzeko epea ekainaren 10ean, 12:00etan itxiko dute. Jarraian udalak



Gazteen kamiseta eta bestelakoak ordaintzeko laguntzak dira.

proposamen guztiak aztertuko ditu eta aurrekontuan diru-laguntza horietarako duen dirua taldeen artean banatuko du. Koadrila bakoitzari zenbat egokitu zaion jakinaraziko diotela aurreratu dute.

Koadrila bakoitzak uztailaren 1a baino lehen Kultura Sailera bidali beharko ditu fakturak (fakturan eman zaien zenbatekoa agertuko da, BEZ barne

eta Eibarko Udalaren izenean egingo da, IFK: P2003100A). Bestalde, gastua ordainduko baina handiagoa izanez gero, aldea koadrilak ordaindu beharko duela argi laga nahi dute. Informazio gehiago nahi izanez gero zuzenean Kultura Sailera jo dezake (Portalean, 1. pisuan), 943708435 telefonora deitu edo kultura@eibar.eus helbidera idatzi.




Saria jaso du "Intruders" taldeak D'zanp dantza lehiaketan

Aurreko zapatuan Bilboko Euskaldunan jokatu zen D'zanp dantza lehiaketan, "street dance" modalitatean hirugarren saria eraman zuten Eibarko "Intruders" taldeko neskek, Sara Arregi, Naroa Azpiazu, Ane Blas, Leire Bergara, Leire de Blas, Oihane Gartzia, Iraia Gonzalez, Sofia Machin, Laura Martinez, Nerea Mugika, Marta Riaño eta Irene Vazquezek. Neskek Nerea Lodosaren dantza eskolako Yanire Hornak eta Jone Barandikak prestatutako koreografiarekin eskuratu dute saria, estatu mailan garrantzitsuenen artean dagoen lehiaketan.


NEREA GALLASTEGI AIZPURUA
(1976-IV-21/2015-V-5)
I. URTEURRENA

"Beti egongo zara gure bihotzetan"

ZURE FAMILIA



udaberriko moda




Udaberrirako

BEHAR DUZUN GUZTIA

ospakizunetarako jantziak,
egunero erabiltzeko erropa,
moda gaztea eta dibertigarria,
erropa erosoak eta informalak,
umeendako erropa,
konplementoak...
Eibartik irten gabe
udaberriko modan aukera zabala!!!


Birjiñape, 1

Zuloagatarren, 9



Guby
MUTILAK

San Agustin, 3
943-204181

 kopinamoda



ume eta
gazte

Kopina
moda

Errebal, 1
(Aldapatxo)
943-259281



Patukos
www.patukos.net

Errebal Kalea 1 (Aldapatxo)
20600 Eibar

%10


DESKONTUA
kupoi hau
aurkeztuta

BALIAGARRIA
2016-VI-30era arte

Patukos

Ahariak badute bere historia herri-kirolen mailan. Ez hori bakarrik: Eibarren adibideak aurkitzea ez da hain zaila. Asko dira joko hau maite izan dutenak eta buru-belarri sartu direnak horrelako probetan: Oteiza, Arikitxa, Katillu, Gisastu... Eta, eurekin, benetako protagonistak: *Pepete, Indurain, Txiki, Tzulo...*

Ahari-jokoak gure herrian



Eibarko zezen-plaza 1902an egin bazen ere, pentsatzekoa da askoz ere lehenago egiten zirela ahari-jokoak gure herrian, zezenketak eta sokekin lotutako idiak plaza zabalean egiten zirelako. Behin XX. mendean sartuta, 1908ko Euskal Jaietako kartelean hainbat ahari bikoteen norgehiagokak iragaritzen dira, Udalaren babesarekin. Gregorio de Mugicaren "Monografía Histórica de Eibar" liburuan esaten denez, hiru egun iraun zuten jai horiek, eta horietan musika-banden lehiaketak eta pilota partidua egin ziren, orduan inoiz baino indartsuago zegoen herriko industrian aurkitzen ziren produktuen erakusketarekin batera.

Ordurako herri-kiroltako bultzatzaile nagusienetakoa zen gero alkatea izango zen Santiago Astigarraga "Ibargain", bere idi bikote batekin 130 garaipen lortu zuena. Toribio Etxebarriak "Viaje al país de los recuerdos" bere liburuan "probalarien aitzindaritzat" jotzen du Ibargain eta baita "ahari bikainen jabetzat". Hain apostuzalea zen, gobernuaren debeku bati ihes egin ez, hainbat egun kartzelan eman behar izan zituela, egun horietan bere alkate kargua Aki-lino Amuategik ordezkatzeko. Sasoi horretan hartu zuen ospea Domingo Oteizaren "Pepete" ahariak: Donostiako zezen-plazan galdu zuen lehen aldiz 1911ko azaroaren 26an.

Aipatutako Toribio Etxebarria, baina, ez zen joko horietan

ko oso zalea eta "naturan aurki daitekeen basatiena" dela esaten zuen. Ez hori bakarrik: "Apostuek ere ez dute inolako zentzurik, egitearren bakarrik egiten dira" esaten zuen. Etxebarriak Basilio Arrizabalaga "Narru" gogoratzen du, txapeldun handien hazitzaile moduan. Orduko sasoiaren ardoaren ahariaren karburante nagusia eta horrela jarraitu zuen izaten hainbat urtetan.

I. Mundu Gerraren amaierak ekarri zuen krisi ekonomikoaren ondoren, berpizte industrial eman zen herrian 1920. hamarkadarekin, G.A.C., Orbea, Beistegui Hnos. eta Alfaren sorrerarekin. Horrela, 1930eko azaroaren 20an Eibarko zezen-plaza inoiz lortutako markaren lekuko izango zen: Itziariko Domingo Agirreren eta Zumaiako Santa Klara baserriko aharien arteko lehia irabazle barik geratu zen, 317 talka egin ondoren. Gerra Zibilaren ondoren, Eibar berria

joango da sortzen hondakinetatik, eta Zuloaga indartsuak apostuen era berria zabalduko du, Urkora 104 kiloko burdinezko barra batekin igota.

Txomin Mandiola "Agiñaspi"ren "paperak" osatuko dute gerra ondorengo norgehiagoken artxiboa: izan ahariena, idiena edo harri-jasotzaileena. Silverio bere aitak Agiñaspi jaiotako baserria laga (Aginaga auzoan) eta Urkizun ospe handia hartuko zuen jatetxea egin zuen; hor sinatzen ziren inguruko ahari-talka apostu gehienak. 1940. hamarkadako azken urteetan, Txomin Zubizarreta deabrukeriak egiten hasi zen 128 kiloko "plomoarekin" eta 100 arrobako zilindrikoarekin txapelduna zen Manuel Arakistainek (gero Bar Manuel izango zuenak) etorkizuneko harri-jasotzaileak prestatzen hasi zen, Barakaldo kalean zuen Zianzor sagardotegian. Narru, Eugenio Atxa "Arikitxa", Jose Astigarraga (Matsariako Azo-

la baserrikoa), Sautxi, Igartua (Montecasino tabernakoa), Napoleón Goenaga zaletu handia, Abetxe (Muzategi aroztégikoa) edo Gisastu sastre apostulari handiak izan ziren. Eta Txomin Mandiola apostuen "depositario ofiziala". Azken honek bere ahariak zituen eta 1970. hamarkadako amaieran berotuko da mundu hori, batez ere "miliobat pezetako apostuarekin": Azpeitian jokatu zen eta Eibartik hainbat autobus joan ziren. Ordurako nahiko altua zen apostua kubritzeko hainbat bazkide batu ziren, eta baita irabazle irten ere, zein talkekin lehia irabazi zuen Narru eta Itxetak prestatutako ahariari esker.

Ahariak aparte, beste desafio handi batzuk adostu ziren Agiñaspi tabernan: Endañetarena kasu, edo Urtain gazte batena 54 urteko Justo Gallastegiren kontra. Miguel Gallastegi pilotariaren anai nagusiak galdu egin zuen apostua 160 kiloko kubiokoarekin "Arronako morroskoaren" aurrean. Taberna traspasatzean amaitu ziren Eibarko apostuak. Ahari-jokoek Eibartik Azpeitirako bidea hartu zuten.

Roberto Zabaleta "Katillu", Eugenio Atxa Albizuri (Arrate-Balleko Arikitxa baserrikoa) eta Jose Francisco Albizu "Gisastu" izan dira ahari azken hazitzaileak Eibarren. Eugenio Atxaren "Indurain" ahariak jokatu zuen azken lehia Eibarko zezen-plazan, 1995ean Zarautzeko Marcos Orbegozorenari irabazita.



Jose Atxa "Arikitxa" eta bere seme Eugenio, 1948ko argazkian. Beste argazkian, azken hori Karakate aurrean, 1960. hamarkadaren hasieran.



Mikel Urkia eibartarra lidergoan Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketan

Batez ere azken bi asteburuetan egindako lanari esker igo da sailkapeneko go-renera Asola Berriko bolalaria. Aurreko zapatuan etxean, Eibarko bolatokian, jokatutako tiraldian nagusitu zen eibartarra, bost txirlorekin, San Andreseko Iñaki Ariznabarreta eta Lasturko Jesus Mendiberekin berdinduta. Asola Berriko Sergio Rodri-

guezek eta Laura Rivasek lau txirlo etzan zituzten, San Migueleko Unai Loiolak moduan. Sailkapen orokorrean Urkia Floreagako Gorka Etxanizekin dago berdinduta, 21 txirlorekin, eta Unai Loiola dute atzetik, 19rekin. Bihar jokatuko da hurrengo jardunaldia Floreagako bolatokian, Etxanizen etxean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.



Mikel Urkia Asola Berrin jaurtitzen. Leire Iturbe

Areto-foballeko Debabarrena garaile finalerdi bezperatan

Aldapetari 1-5 irabazi zioten eibartarrek Gipuzkoako infantil mailako txapelketaren sailkapen faseko azken jardunaldian. Golak ondo banatu zituzten Debabarrenekoek Donostian: Doehm, Patxi,

Bengoia, Pablo eta Sameer izan ziren goleatzaileak, bakoitza gol batekin. Asteburu honetan atsedena hartuko dute eta hurrengo zapatuan, hilaren 14an, azken play-offeko finalerdia izango dute zain Erainen kantxan.



Triatloi denboraldia hasi dute herriko triatloilariek

Hotzak joan gabe oraindik ekin zioten aurreko asteburuan triatloi denboraldiari Delteco Eibar Triatloi Taldekoek. Zapatuan Getarian jokatutako sprint triatloian Pello Osoro podiuma ukitzeraino heldu zen beste behin, 4. postuarekin konformatzeko. Txomin bere anaiak hogeigarren amaitu zuen, Igor Atxak 70. postuan eta Xabier Arrietak 125.ean.

Domekan Senpereko triatloi olinpikoan izan ziren Deltecoko Javier Murcia eta Adur Juaristi. Baina ez ziren eibartar bakarrak izan, beste taldeko baten elastikoarekin parte hartu zutelako emakumezkoetan Ane Ziaranek eta Aitziber Urkiolak. Azken honek maila handiko bigarren postua eskuratu zuen.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

667 54 89 16 (Ritxar) kolorlan@hotmail.com



KOLORLAN
P I N T U R A K



San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Eibar-Betis amaituta (domekan, 17:00), ekingo diete Ipuruako berritze lanei

Etzi jokatu du Eibarrek denboraldiko azken partidua Ipuruan, jardunaldi horretako partidu guztiak hasi beharko diren ordu berean. Betis aurkaria ez dago jaitsieratik libre matematikoki eta partiduak bado bere garrantzia. Horrez gain, eibartarrek modu onean agurtu nahi dute denboraldia zaletuen aurrean eta horrek dena ematera behartuko ditu Mendilibarren mutilak. Partidu amaieran, gainera, kontzertua antolatu du klubak, hiru talderen parte-hartzearekin.

Astelehenean, bestalde, Ekialdeko tribuna berria eraikitzen hasiko dira, lanok urtarrean amaitzeko. Herenegun Alex Aranzabal presidenteak eta Gorka Unamuno klubeko obra eta instalazioetako arduradunak emandako prentsaurrekoan azaldu zituzten 1970-71 denboraldian eraikitako tribunaren ordezkia egiteko martxan jarriko diren lanetako gorabehera nagusiak. Gaur egun 1.022 laguneko aforoa duen tribunak 2.000 lagu-

nendako tokia izango du eta, horrela, estadio osoan 7.100 lagun sartu ahal izango dira. Lan horrek aurretik Ipar tribunan egindakoari (hor 1.230 toki gehiago egin ziren) jarraituko dio.

Tribuna berriarekin planta bakarreko lur-azpiko parking-a egingo da, 60 autorendako eta, horrez gain, klubaren Interpretazio Zentroak eta Museoak ere izango dute euren tokia. Aurrekontua 2,3 milioi eurokoa da eta erakunde publikoen laguntza izatea espero zutela adierazi zuen presidentek, *"gure mailako taldeek jaso duten bezala"*.

Tribunako lanak hainbat fasetan banatu dituzte: abuztuko bigarren asterako amaituko dituzte zelai azpian joango den parking-aren sotoa; urriaren amaierako martxan jarriko da gradaren erdia; urtarilerako amaituko da tribuna guztia; martxorako itxierak eta akabatuak; eta 1916-17 denboraldiaren amaierarako egongo dira museoa, denda eta lokal guztiak.

Urbat Waterpoloaren hil ala biziko partidua domekan 15:00etan Orbean

Santoñan gol batengatik galdu eta gero, aurreko asteburuan 13-7 irabazi zieten Davide Cerchiren mutilek kantabiarrei partiduan zehar nagusitasuna erakutsiz. Eta etzi zirt edo zart egiteko ordua helduko zaio Urbati Euskal Herriko Ohorezko mailari eusteko. Partidua 15:00etan hasiko da. Aurreko asteburuko lehia Eibarko taldeak erritmo bizian jokatu zuen eta, Moya atezainaren geldiketa handiekin batera, Basterrika nabarmendu zen lortuako golekin, kanoikadak ziruditen jaurtiketekin.



Hodei Jainaga jabalina jaurtizailearen marka

Eibarko atletak debut ezinhobeia izan zuen Real Sociedadekin aurreko asteburuan Zaragozan jokaturako jardunaldian. Eibartarrek hamar zentimetrotan hobetu zuen (65,02 metro) negu honetan berak espezialitate horretan ezarritako marka eta zegokion zortzi pun-

tuak oso ondo etorri zitzaizkion bere taldeari. Jainagarena izan zen Realekoek lortutako hiru garaipenetako bat eta, emaitza horiekin, aurrerapausu handia eman du taldeak estatuko maila goreneko, Ohorezko Mailako, ligaren finalerako sailkapena lortzeko.

Somos Eibar indartsu denboraldi amaieran

Eibar Eskubaloiko talde nagusiak Uharteri irabazi zion 25-31 eta haren postua eskuratu zuen sailkapenean, hau da, laugarrena da orain. Lander Casado eta Aitor Tellexea izan ziren goleatzaile nagusiak, 9 golekin. Denboraldia amaitzeko, Anaitasuna hirugarren sailkatua jasoko dute bihar Ipuruan. Senior mailako bigarren taldeak, Haritzak, igoera faseko lehen jardunaldiko porrota ahaztu eta Mungian 19-28 nagusitu zen. Bestalde, IK4-Teknikerreko jubenil mutilak liderrak dira Gipuzkoako Kopan eta sailkapen buru da Eibar Eskubaloia gazte mutilen taldea Gipuzkoako Trofeoan; azken horiek, Urrietari 27-10 irabazita, lehiaketa horretako finalerako sailkatu dira.

Izen-ematea zabalik Bailerako XIX. foball-7 txapelketarako

Elgoibarko eta Eibarko Kirol Patronatuek Bailerako foball-7 txapelketako 19. edizioa ipini dute martxan izena emateko epea zabaltearekin bat. Epe hori hilaren 26an amaituko da eta 1999an edo lehenago jaiotakoek hartu dezakete parte txapelketan. Izena Ipurua kiroldegian edo Elgoibarko Olaizaga kiroldegian eman daiteke, 80 euro ordainduta. Ohikoari jarraituta, taldeekin lau multzo osatuko dira zozketa bidez eta, itzuli bakarreko liga jokatu eta gero, lau talde onenen artean jokatu dira finalerdiak. Gehienez jota, 20 talde onartuko dira.

Gimnasiaren I. Eguna bihar Eibarren

Hamar orduko erakustaldia egingo dute bihar Ipurua gimnasia klubekoek, modu horretan egiten dutena jendeari erakutsi eta ekonomia arloan bizi duten egoera zailari aurre egiteko. Untzagan hasiko dute egitaraua 10:30ean eta, Tania Nagornaia, Miriam Merino eta Natalia Urmakaebaren aginduetara, entrenamendu saioak eta hainbat joko egingo dituzte kalean; erakustaldi horietan denboraldian ikasitakoa jendaurrean azalduko dute klubeko gimnastek. Ipuruako partaide guztiak izango dira protagonista biharko, kirolarien senideak ere lanean izango direlako zabalduko duten txosnan.

Bestalde, aurreko zapatuan Bergaran jokaturako amateur eta eskola txapelketako kanporaketan, Eibartik joandako hiru taldeak eta 17 gimnastetik 14k lortu zuten sailkatzea Gipuzkoako finalerako. Senior mailako taldea onena izan zen hiru arorekin eta beste hiru maza parekin egindako ariketan eta, jubenil mailan, Lorea Armendariz eta Arrate Baroja sailkapen orokorreko lehen bi postuetan daude eta Nerea Deza bosgarren dago. Aurretik, hilaren 14an, amateur A mailako Gipuzkoako txapela izango da jokoan Ibarren; eta 21ean eskola mailako A eta B txapelak Ordizian.



Gimnasia ariketak ikusteko aukera izango dugu bihar egun osoan.



Herriko txirrindulariak Bidasoako itzulian

Maiatza ondo beteta izango dute Eibar Energia Hiria - Debarrena taldeko txirrindulariek. Hasi ere, gogor hasi dute: asteburuan Lazkaoko eta Legazpiko probetan hartu zuten parte eta Klub deportibokoek maila ona eman zuten Richard Carapazek (Lizarte) eta Jon Irisarrik (Caja Rural) irabazitako lasterketetan. Herenegun hasi zen izen handiko Bida-

soako Itzulian, honako zazpikoteak osatzen du Juanjo Sebastianek zuzentzen duen taldea: Victor Cordon, Aitor Hernandez, Onditz Urruzmendi, Asier Taboada, Txomin Osoro, Koldo Armendariz eta Beñat Bollar. Europa osoko taldeekin dihardute lehiatzen Igantzin, Hondarribian, Orion eta Irunen helmuga duen proban.

Foball-zaletuen Kopako final-laurdenak bihar eta etzi

Kirolbet.es torneoko Kopako lehen jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan eta hor bazegoen benetako interesa piztu zuen lehia: Ligako lehen bi sailkatuen artekoa. Partidu borrokatu izan zen "aurreratutako finala" deitutakoa: golik gabe amaitu zen eta penaltietan Durango liga txapelduna nagusitu zitzaion Txokori. Final-zortzirenetako zazpi garaileei Bar Areto gehitu zaie, galtzaileen arteko zozketak horrela erabakita. Honakoak izango dira asteburuko final-laurdenak: bihar, Kontent-Sporting Novak (09:00) eta Bar Areto-Ez Dok (10:30); eta etzi, Slow Xok-Alkideba (09:00) eta L.P. Machado Tankemans-Durango (10:30).



Eibar FTko nesken lehen taldeak mailari eutsi dio Leioan irabazita

Ainhoa Alonsok lortutako bi golekin eta Melanik eta Ane Egañak sartutako banarekin erraz nagusitu ziren eibartarrak Leioako Emakumeak taldearen aurrean. 0-4 horrekin hurrengo denboraldian 2. Mailan jarraitzeko txartela eskuratu zuten matematikoki eibartarrek, atzetik dituen taldeetako inor ez zelako gauza izan bere partidua irabazteko. Ligari agur esateko eibartarrek euren atzetik dagoen Mariño jasoko dute Unben.



Sarrera guztiak agortuta daude gaur 20:30ean Orioko abeslariak eskainiko duen "bere lehen kantaldia" jarraitzeko. Horrela hartzen baititu kontzertuak Benito Lertxundik, berriak izango balira bezala: bakarra eta errepikatuko ez dena izateko. Coliseoan sortu eta han amaituko dena. Hori bai, dena lotuta eramango du, "zure produktua erosten duenari hori erdiotzulako". 2012an kaleratutako "Oroimenaren oraina" izango dute ardatz kontzertuan. Baina, 17 disko kaleratu ondoren, tarte ere izango da beste kantu ezagunagoak entzuteko, oraindik kaleratu gabeko beste hainbatekin batera.

Ruben Plaza

BENITO LERTXUNDI: "Euskal musika gazteegia da eskola finkatzeko"

– Gaur Coliseoan eskaini behar duzuen kontzertuan "Oroimenaren oraina" azken diskoaren bueltan jardungo duzue? Abesti berririk edo bestelako ezustekorik eskaintzeko asmorik?

Azken aldian ematen dihardugun antzerako kontzertua izango da: azken disko horretako abestiak ardatz hartuta, jendeari gugandik espero duena behintzat eskaintzea da gure asmoa. Ez da faltako, ezta, abesti ezagunen tarte. Eta, jakina, oraindik editatu gabeko lan batzuk ere aurkeztuko ditugu.

– Ez da zure estreinaldia izango gure herrian. Aurretik Eibartik pasatu izanaz, zer oroitzapen duzu?

Sasoi batean sarritan jo izan genuen Eibarren. Zergatiak neri ez galdetu, baina izan zen gero hainbat urtetako tarte horra joan barik. Eta gero gogoan dut Coliseoan bertan jardun genuela azkenengoz; esango nuke, gainera, antzokia berriro inauguratu zutenean izan zela.

– Gustora jarduten duzu horrelako eszenategietan? Handiak ala txikiak nahiago?

Toki txikietan jotzeko nahiko arazo ematen ditugu guk geuk, hamar bat lagun bagara-eta jotzen. Hainbeste laguneko taldea mugitzeko, beharrezkoa egiten zaigu

aldi berean publiko gutxieneko kopuru bat. Kursala egokia izan daitekeen moduan, estadioak ez hainbeste: nire abeslariak dira, berezotasuna jango lieketenak. 700 lagunentzat jotzea gure neurrikoa iruditzen zait.

– Kontzertuak oso prestatuta izaten dituzue ala ikus-entzulearen arabera aldatzen edo moldatzen duzue?

Gure kasuan, nahiko prestatuta eramaten dugu eskaini behar duguna. Beti ere, aurrean dugunari erreparatzen diogu; eta horrek ekar dezake abesti bat kentzea beste bat ipintzeko, edo abestien ordena aldatzea. Baina beti joaten gara kontzertua nondik nora joan daitekeen ideia argi batekin.

– Zenbat kontzertu eskaintzen dituzue urtean? Hemendik kanpo irtetzeko asmorik bai?

Gorabeherak izan ditut urte guzti hauetan. Hasieran geratu barik ibili ginen, jendearen artean zabaldutako sukarrak hala eskatuta; izan ziren urteak astero lau kontzertu eman behar izan genituenak. Gero murrizten hasi ziren saioak eta, krisiak harapatu gintuenean, egoerara moldatzen jakin behar izan genuen. Udalek diru gutxiago zuten gu kontratatzeko eta pro-

dukzioa gure kabuz egiten hasi ginen. Iaz 25 kontzertu eskaini genituen. Baita Euskal Herritik kanpo ere: Pariseko antzoki batean eskainitakoa berezia izan zen zentzu guztietan, bikain antolatua, eta merezi izan zuen esperientzia izan zen. Oso polita joan zen.

– Zer bilatzen duzu batez ere kontzertuetan? Orokorrean konforme irteten zara? Ala zure buruari gogor egiten diozu?

Izateko moduak asko esan nahiko du seguruenik eta, bai, guztiz pozik ez gertzeko joera badut. Kontzientzia argia dut dudan zorteaz jabetzeko. Badakit jendeak nik egindako lana erosten duela eta begirune handia diet horrelako gauzei. Nahiko asekaitez naizelakoan nago. Coliseoan eskainiko dudan kontzertua nire lehen kantaldia da: horrek duen esanahi guztiarekin, ez da esaldi batera mugatzen. Badakit handik irten eta marra-marra bueltatuko naizela etxera, kantaldiari bueltak emanaz; hurrengo egunetan sendatzen joango naiz eta, ondoren, hurrengo kantaldia jaioko da.

Hurrengoetan ere berdina izango da. Baina hori da behar dudana, horrek bizi nau. Zure uzta ematen diozu jendeari eta ordaintan publikoarekin lortzen duzun konplizitate horrek, sortzen diren bibra-

zio horiek, beharrezkoak dituzu ibilbidea egiteko.

– *Urte guztietako bilakaeran, zertan aldatu zara batez ere?*

Oharkabean izanda ere, aldatzen goaz ezinbestean. Gainera, gauzak hobeto egiten saiatzen garenez, geuk ere aldaketaren bidetik jotzen dugu, ordura arte egin ez duguna egiten. Proposatu gabe ere, argi dago aldatzen naizela estetikoki. Hori bai, gauzek gu aurkitzen gaituzte, beti ere topo egiteko baldintza egokietan aurkitzen garenean. Bestela, ez daude inon. Inork ez du ezer aurkitzen, gauzak ez badira behintzat guregana etortzen. Ez da nire lanbidearen edo izaeraren kontua bakarrik; goitik behera edo behetik gora, baina halakoen menpe gaude.

– *Gaur egun zein autore, zein testu, dituzu esku artean? Norengana jotzen diharduzu?*

Nire kabuz badihardut ere, ezin dut ukatu Fernando Pessoaenak nireak bezala ditudala. Zaila da esplikatzeko, baina bera irakurrita nire arima bikitzat hartu dut. Gero eta gehiago ohartu naiz gizakia eta natura berak ulertzen zituen modua eta nirea oso

“Euskal Herria herri menperatua izanda, gure ezaugarriak diren kultura, hizkuntza eta horren inguruan sortzen diren kantagintza edo musika herri menperatu batenak dira.

Ez guk nahi dugulako, baina hori horrela da. Ez gara deus munduan eta uste dut munduak ezagutu behar gaituela euskaldun bezala”

antzekoak direla, bide beretik doazela. Eta berak bizitako denboretako konstante berdinei eusten diogula gaur egun.

– *Zelan ikusten duzu gaur egungo euskal musikaren egoera orokorrean?*

Euskal musika haurra da oraindik, hori du gabezia. Gu hasi ginen zerbait berria egiten, koplari eta bertsolarien tokia hartuta. Iparragirrenen ondoren, geu izan ginen juglar lanak egiten lehenak. Tradizio bat izateko 50 urte behar dira gutxienez eta, munduko besteekin zure burua parekatzeko, gazteegia da oraindik euskal mu-

sika. Eskola finkatzeko astirik ez dugu izan oraindik. Horrez gain, gure egoera ere den modukoa da, herri menderatua gara ia zentzu guztietan eta hori zama da euskal musika garatzeko orduan. Herri bat burujabe izan behar da munduaren plazan besiteen parean izateko. Hori lortuz gero, guztia aldatuko litzateke: nazioarte mailan errespetatuko gintuzkete. Horretarako ez da anglosaxoia izan beharrik... hungariarren pare egotearekin nahikoa da.

Baina erregional mailan dihardugu jokatzeko, beheko mailan. Aukerak behar dira: Parisen emandako kontzerturako euren hizkuntzan eman behar izan genituen gure erreferentziak, gure burua aurkeztu... baina gero, testuen maila literarioak-eta feeling-a sortzea ahalbidetu zuen: autopista zabaldu zen, hegan egiteko aukera eman go ziguna. Kulturaren jabe izatea, hizkuntza garatuta izatea... abantailak dira. Horrek dakar euskeraz jakin barik ere Parisen eman genuen kontzertuan ikus-entzule izan genuen batek Orion eman dezakegun beste batean izan daitekeen beste batek baino hobeto ulertu ahal izatea transmititu nahi zaion mezua.



GUK BAI
LEA ARTIBAI

ATE IREKIAK LANBIDE HEZIKETA

MAIATZAREN 12AN, 15.00 ETATIK 19.00 ETARA

HEZKUNTZA ESKAINTZA:

ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

Sarbide proba goi mailarako

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Ekoizpen Prozesuak eta Kalitatea Etikagaien Industrian
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Mekatronika industriala
- Web Aplikazioen Garapena

ARRATSALDEZ

- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa

lea artibai
i k a s t e t x e a
Etor-kizuna eraikiz

Markina-Xemein · 94 616 90 02 · info@leartik.com · www.leartik.com

Musika Bandaren emanaldia

Eibarko Musika Bandak domekan kontzertua emango du, 12:30ean Coliseoan (eguraldiak lagunduz gero, 11:30ean kalejira egingo dute musikariek). Carlos Sanchez Barbaren zuzendaritzapean, honako egitaraua eskainiko dute: "Abandotarra" (kalejira, D. Borea), "El huesped del sevillano" (aukeraketa, J. Guerrero), "Marcha Es-lava" (martxa, Tchaikovsky), "Miss Saigon" (aukeraketa, Schönberg) eta "Cordilleras de los Andes" (suite, K. Vlak). Musika Bandaren hurrengo kontzertua, bestalde, 51. Euskal Jaiaren egitarauaren barruan izango da, maiatzaren 28an, 19:00etan Untzagako eszenatokian.



Kontzertu hirukoitza denboraldia agurtzeko

Eibar foball taldeak hurrengo denboraldian BBVA Ligan jarraituko duela eta, hori ospatzeko kontzertu hirukoitza antolatu dute domekarako. Ipuruan Betisen aurkako norgehiagoka amaitu eta gero, 20:00etatik aurrera Untzagan The Vartols, Celtas Cortos eta Juan Magán, hirurak bata bestearen atzetik zuzenean entzuteko aukera izango da, "denboraldia #prim3ran amaitzeko moduko festibalean".



51. EUSKAL JAI 2016
Eibara

kantu AFARIA maiatzak 28 21:30
herri BAZKARIA maiatzak 29 14:30
Untzagako KARPAN

BERTOKO baserrietako produktuekin
10€
12€

SARRERAK SALGAI DEPORREN maiatzaren 26ra arte
10€
12€

LASUNTAZAK
Aste Berriko Aste, Dimeak, Gure Gureko Dimeak, Martxoaren 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31

Euskal Jaiako txartelak salgai

Maiatzeko azken asteburuan Klub Deportiboaren eskutik ospatuko den 51. Euskal Jaiaren egitarauaren barruan, maiatzaren 28an kantu-afaria (21:30ean) eta maiatzaren 29an herri-bazkaria (14:30ean) egingo dira, Untzagako karpán, bertoko baserrietako produktuekin osatutako menuarekin. Joan nahi dutenentzat txartelak salgai ipini dituzte, Deporren, 12 eurotan "langile eta dirua dutenentzat" eta 10 eurotan ume, ikasle eta langabetuentzat. Hilaren 26ra arte (edo denak saldu arte) egongo da erosteko aukera.



Zinea eta Osasuna zikloa

Agifes-ek (Gaixotasun Mentala dutenen eta familiekoen Gipuzkoako Elkarteak) antolatuta, maiatzeko astelehenean "Zinea eta Osasuna" emanaldi-zikloa hartuko du Coliseo antzokiak. Datorren astelehenean, 19:30ean "El lado bueno de las cosas" (David O. Russell) pelikula emango dute (1. aretoan) eta, jarraian, filmaren inguruko solasaldia egingo da. Emanaldi guztietarako sarrera doan izango da, baina aurretik gonbidapena jaso beharko da, Agifes-en egoitzan (Isasi kalean) edo Coliseoko leihatilan.

Debabarreneko Orkestraren estrainaldi bikaina

Aurreko barixakuan aurkeztu zuen Jose Miguel Laskurainek bere eskutik sortu den Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa, horretarako propio prestatutako emanaldian. Eibar eta inguruko musikariek osatzen duten orkestrak, espero zen bezala, pozik laga zituen Coliseora entzutera joandako guztiak.



Leire Iturbe



Jaialdia gaur gauean Tas Tas-en

Gaur gaueko jai alternatiboa antolatu dute Tas Tas kafe antzokian, 22:00etatik aurrera, zuzeneko musikarekin: La Nevera Vacia taldearen kontzertuarekin hasiko dira eta, jarraian, DJ saioarekin jarraituko dute, 80/90. hamarkadetako musika ipinita. Hilaren 20rako, bestalde, zuzeneko beste emanaldi bat prestatzen dabilzala aurreratu dute.



Kurtsoari agur Harixa Emoten-ek

Aste honetan, martitzenean agurtu zuen ikasturtea "Idazlearekin Harixa Emoten" irakurle taldeak. Uda aurretik azken saioa izandakora Jasone Osoro idazle elgoibartarra gonbidatu zuten, "12etan bermuta" bere nobelari buruz jarduteko. Udako oporrak amaitzean, ikasturte berriarekin batera euskerazko irakurketa taldeak bere hileroko martxari berriz hel-zea espero dute arduradunek



Sekula Betiko Lurraldera bidaian

Peter Pan-en ipuina antzeztu zuten Gurasoak Berbetan programako umeez aurreko barixakuan ...eta kitto!-ren egoitzan. Amatxo Elenak, Naroaren laguntzarekin, lan bikaina egin zuen ume guztiak makillatzen. On-do entsaiatu eta gero, gurasoen aurrean antzeztu zuten Peter Pan lana eta saioan pertsonaia guzti-guztiak egon ziren: Peter Pan, Garfio kapitaina, Smith jauna, Txilintxo maitagarria, Wendy eta bere "ahizpak", piratak, indioak, haur galduak... arratsalde polita pasa zuten guztiak elkarrekin.



Amañako danborradak

Amañako danborradetarako entseguak datorren astean, eguenean (maiatzaren 12an) hasiko direla eman dute aditzera arduradunek. Betiko moduan, ikastetxeko jolastokian izango dira entseguak, 19:00etan umeenak eta 20:00etan nagusienak. Aurten umeen danborradak 25 urte beteko dituela eta, inoiz parte hartu duten guztiei egun horretarako gonbidapen berezia egin diete.



Musika Eskolarako matrikulazioa

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan 2016-17 ikasturterako matrikula egiteko epea zabalik dago. Ekainaren 3ra arte musika hizkuntzan (maila guztiak), koruan eta talde instrumentaletan izena emateko aukera izango dute horrela nahi duten guztiak. Bete gabeko lekuri geratuz gero, lekuak bete arte matrikulatzeko aukera egongo da nahiz eta epea bukatuta egon.



Luis Lopez-en erakusketa

Amañako Amesti tabernak maiatzean Luis Lopez eskultore eta argazkilariaren lanen erakusketa hartuko du. Eibarko Artisten Elkarteak kidea denak "Fotografía viva: bosques" izenburukoan hainbat irudi bildu ditu eta, argazki bakoitzeko elementuak azpimarratzeko, modu berezian tratatu ditu.

Pinotxo, zirkoa eta askoz gehiago!

Aurreko barixakuan aurkeztu zituzten atzo abiatu ziren Debabarreneko Eskolarteko XXXII. Antzerki Jardunaldiak udaletxean. Antolatzaile lanetan jarduten duen Juan Ortégaren berbetan, "ikasleentzat pentsatutako egitaraua izan arren, aurkeztuko diren lanen kalitatea beste Antzerki Jardunaldietan taularatzen direnen parekoa da. Horregatik ikastetxei dei berezia egin nahi diet lanak ikustera joan daitezten. Izan ere, gauzak erabiltzen ez direnean horiek galdu edo desagertzeko arriskua dago, eta pena litzake jendeak ez aprobeztatzeagatik horrelako eskaintza gozatzeko aukera galtzea". Egitaraua haurrentzat pentsatuta prestatu badute ere, emankizun guztiak edozeinentzat zabalik egongo direla azpimarratu dute eta sarre-ra doan izango da ("Magic Spectacular" eta "Pinocchio" izan ezik).

Egitaraua atzo hasi zuten Narruzko Zezen taldekoek, baina datozen egunotan jarraipena izango du: bihar 17:00etan "Pinocchio" taularatuko dute Coliseoan (5 euro). Martitzen eta eguaztenean, berriz, Bartzelonako Los Galindo-ren eskutik aurtengo berritasun nagusia, zirko-itxurako "Maiurta" ikuskizuna ailegatu da Untzagara (egun bietan saio bikoitza, 11:00etan eta 15:00etan eskainiko dute). Maiatzaren 14an, 20:30ean "Magic Spectacular" eskainiko du Mago Suneke Coliseoan (10 euro); hilaren 16an, "Ilargiaren zirkoa" taularatuko dute (15:00etan



"Pinocchio" taularatuko dute bihar 17:00etan Coliseoan.

Hezkuntza Esparruan); 17an "Cada cosa a su tiempo" (15:00etan Coliseoan); 23an "Barbantxo 3D" (15:00etan Hezkuntza Esparruan); eta, amaitzeko, 27an "Canciones de miedo y risas" (15:00etan Hezkuntza Esparruan).



Argazkilaritza Maiatzean, sasoiko eta martxa betean

Aurreko astean aurkeztu zuten Klub Deportiboan Argazkilaritza Maiatzean Deporreko argazki taldekoek, Iñaki Osoro Klubeko presidentearen, Patxi Lejardi kultura zinegotziaren eta Agustin Sagasti, Koldo Badillo eta Jose Manuel Lucena argazkilarien parte-hartzea izan duen ekitaldian. 2003an abiatutako Argazkilaritza Maiatzean hilabete osorako programazioak 14. edizioa beteko du aurtentzen. Argazki munduaz gozatzeko aukera eskaintzen duen Klub Deportiboko argazkilaritza taldekoek prestatutako egitarauak hainbat erakusketa hartzen ditu, "denak goi mailakoa" eta, horiekin batera, bestelako jarduerak batzuetarako tartea ere izango da.

Maiatzaren 2an zabaldu zituzten lehen lau erakusketak: Manuel Vilanovaren "Faces of the world", El Corte Inglesean; Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideenak El Ambigú eta Portalea tabernetan; eta Argizaiola Trofeoak Deporren. Lauak hilaren

31ra arte egongo dira ikusgai, gaur 19:00etatik aurrera zabalduko dituztenekin batera: Portalean Agustin Sagasti, Koldo Badillo eta Oskar Gaskonen banakako erakusketak batera ikusteko aukera izango da, hilaren 29ra arte; Topalekuan, berriz, Jose Manuel Lucenaren lanak egongo dira ikusgai; eta Untzagako jubilatutxearen, berriz, Gipuzkoa Nazioarteko Sariaren lan onenak.

Hori gutxi balitz, "askok eurentzat nahiko luketen" zortzi orduko argazkilaritza tailerra eskainiko du bihar Eduardo Momeñek, Portalean. Hilaren 14rako antolatu duten kaleko topaketan, bestalde, erakusketa kolektiboa, estudio-erretatuak, kamera minularia eta argazki artistikoak saltzeko stand-a egongo dira, besteak beste. Eta maiatzeko azken domekan, urtero bezala, argazki rallya prestatu dute, zaletu guztiei "digitalean eta ia inon egiten ez den paperezko zuri-beltzean" parte hartzeko aukera emateko.



Gazta egiteko irteera

Gazta egiten ikasi nahi dutentzat Sosola baserriara irteera antolatu du Arrate Kultur Elkarteak, maiatzaren 22rako. Izena ematen dutenek goizeko 10:00etatik aurrera 3 orduko ikastaroan parte hartu eta, gazta nola egiten den ikasteaz gain, hamaiketako ere egingo dute. Kultureko bazkideentzat prezioa 3 eurokoa da eta bazkide ez direnentzat, berriz, 5 eurokoa. Izena aurrez emateko 943 202 299 telefonora deitu daiteke (bulego ordutegian) edo, bestela, arratekultura@gmail.com helbidera idatzi.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea



Erroneria Eguna Itziarren

Andutz kultur taldeak antolatuta, bihar Itziarko Erroneria Eguna ospatuko da: egitaraua 11:00etan hasiko da, kalejirarekin; 12:00etan herriko plazan mokadua hartu eta gero, 12:15ean Itziarko eta Bianako dantzariak saioa eskainiko dira eta, ondoren, 14:30ean herri bazkaria hasiko da, frontoian; 18:00etan herriko plazan erromeria hasiko da eta 23:00etatik aurrera soinu-joleekin jarraituko du. Jaian Hernaniko fanfarrea, Hernaniko albokariak, Zubietako joaldunak, Debako eta Hernaniko txistulariak, Hernaniko dultzaineroak, Xabi Solano eta lagunak, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia, Josune Arakistain eta Uxue Amonarriz eta Ostolaza eta Narbaiza izango dira.



Asteburu musikala Ermuan

Musikak beteko du asteburuaren zati handi bat Ermuan: bihar musika eskolen Emusik jaialdiaren barruan, 12:00etan Musikschule der Stadt Pinneberg Klarinettenensemble (Alemania) eta Musikschule Wil orchestra (Suitza) taldeen eta Alboka musika eskolako ikasleen emanaldia hartuko du Orbe kardenalaren plazak. Eta domekan, Irulitxa txarangaren 20. urteurrenaren harira, Alboka Musika eskolako ikasleak, Txindurri taldea eta Irulitxa txaranga izango dira protagonista.

Kontzertua Elgoibarko Sutegixan

Bihar gauean kontzertua emango dute Elgoibarren, Sutegixan gaztetxean Neighbor taldeak (Hernaniko Maite Larburu eta Seattle-ko Josh Cheatham) eta Jon Gurrutxaga elgoibartarrak, 22:00etan hasita. Sarrerak 5 euro balio du.

hildakoak

- Juan M^a Garcia Paredero. 88 urte. 2016-IV-28.
- M^a Teresa Aizpiri Garate. 89 urte. 2016-IV-29.
- Francisco Carro Gordejuela. 86 urte. 2016-V-1.
- Dora Salinas Padilla. 83 urte. 2016-V-3.

jaiotakoak

- Nora Caño Barragan. 2016-IV-20.
- Paula Vila Vicente 2016-IV-25.
- June Andreu Valera. 2016-IV-27.
- Martina Morillo Perez. 2016-IV-29.
- Anwar Benlefkah Zehzouhi. 2016-IV-30.

farmaziak

- Barixakua 6
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Zapatua 7
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Domeka 8
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 9
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 10
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 11
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguena 12
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Barixakua 13
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

7				4	9	8	
		6	8				
2			3				
	2		9	6			4
	5					7	
9			1	4		5	
			5				8
				2	5		
	9	8	4				3

7	8	9	5	3	6	2	4	1
3	5	4	8	2	1	7	6	9
2	1	6	4	9	7	3	5	8
1	4	3	6	7	9	8	2	5
6	2	5	1	8	3	9	7	4
8	9	7	2	4	5	6	1	3
5	7	1	9	6	8	4	3	2
4	6	8	3	5	2	1	9	7
9	3	2	7	1	4	5	8	6

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 6

GAZTELEKUA

16:30. Gazte Txef III. Finala. Indianokuan.

ZINE-FORUMA

18:00. "Hysteria" filmaren inguruan, Pagatxaren eskutik. Portalean.

DIA DAS LETRAS

19:00. Taberna zabalduko dute. "Os galaicos" gaita taldearen kalejira.

Umeendako jokoak, Smily Animación taldearekin.

22:00. Berbena, "Acordes" orkestrarekin. Urkizun.

KONTZERTUA

20:30. Benito Lertxundiren kontzertua. Coliseoan.

JAIALDIA

22:00. Jai alternatiboa zuzeneko musikarekin (La Nevera Vacía) eta jarraian DJ saioa, 80/90. hamarkadetako musikarekin. Tas Tas-en.

Zapatua 7

II. ERREPUBLIKA

10:00. "II. Errepublikaren Eibar" ibilbide historikoa, Jesus Gutierrezekin. Untzagatik abiatuta.

AUZOLANA

10:00. Ibon Muñoaren liburua muntatzeko. Arrate Kultur Elkartearen.

ARGAZKI TAILERRA

10:00/14:00 eta 16:00/

20:00. "Argazkilaritza praktikatzeko hainbat proposamen", Eduardo Momeñerekin. Portalean.

SANTA KURUTZ JAIK

10:30. Kanpai-errepika.

11:00. Meza, Santa Kurutzeko ermitan, Gorosta eta Mandiolan hildakoen alde; ondoren, hamaiketakoa.

12:00. Eibarko trikitilari gazteek saioa hasiko dute.

12:30. Haurrentzako jolasak.

13:00. Herri jolasak, auzoko gazteen eskutik.

14:30. Bazkaria Ixua jatetxean. Ondoren, erromeria (bazkariko txartelak Ixua jatetxean salgai). Santa Kurutzen.

DIA DAS LETRAS

11:30. "Chaves" txapelketa, 8 eta 13 urte bitarteko umeendako.

12:00. Herri kirolak, harrijasotzaile eta aizkolariekin.

13:00. Igel-toka txapelketa.

13:00. Luntxa, Galiziako Etxean.

16:00. "Chaves" txapelketa, nagusientzat.

18:30. Dantza eta musika ikuskizuna Eibarko

"As Burgas" kultur etxeko "Os galaicos" taldearekin

eta Oreretako "Monfragüe" kultur etxeko "Ecos de

Extremadura" taldearekin.

20:00. Dantzaldia, "Los Trovadores" taldearekin.

23:00. Berbena,

"Los Trovadores" taldearekin. Urkizun.

ANTZERKIA

17:00. Debabarreneko eskolarteko XXXII. Antzerki Jardunaldiak: "Pinocchio" (La Baldufa, Lleida). 5 euro. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Gazteek momentuan proposatzen dutena. Indianokuan.

LEHIAKETA

19:00. "Trompos Cometa". El Corte Inglesean.

Domeka 8

SANTA KURUTZ JAIK

10:00. Santa Kurutzera igoera, Urkizuko iturritik abiatuta.

10:30. Kanpai-errepika.

11:00. Meza nagusia, Santa Kurutzeko ermitan, Eibarko Kantuzaleak abesbatzarekin eta, ondoren, piskolabisa, Mugi Panderoa erromeria taldeak girotua.

Auzoko Feria egingo dute, animalien erakusketarekin.

12:00. Soka dantza, Kezka dantza taldea eta Usartza txistulari bandarekin.

12:30. Haurren jolasak.

13:00. Txapel jaurtiketa.

14:30. Amaiera, kanpai hotsez. Santa Kurutzen.

DIA DAS LETRAS

11:45. "As Burgas" kultur etxeko "Os galaicos" taldeak ongietorria egingo dio

Eibarko trikitilari taldeari, Untzagan. Ondoren kalejira egingo dute, Urkizuraino.

12:30. Dantza eta musika ikuskizuna: Kezka dantza taldea, Eibarko trikitilari taldea eta "Os galaicos" gaita taldearekin.

14:00. Lora eskaintza

Castelaoren oroitarriari.

15:00. Bazkaria Galiziako Etxean.

18:30. Dantzaldia "Costa dorada" taldearekin.

22:00. Taberna ixtea eta jaien amaiera. Urkizun.

EIBAR KE-AREN LAGUNEN TOPAKETA

12:00. Zapi-banaketa eta talde argazkia.

13:00. Txikiteoa.

14:30. Bazkaria. Unzaga Plaza hotelean.

KONTZERTUA

12:30. Cielito Eibarko Musika Banda. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Play/Wii.

Indianokuan.

KONTZERTUA

20:00. Eibar KE-ak BBVA

Ligan jarraituko duela ospatzeko: The Vartools, Celtas Cortos eta Juan Magán. Untzagan.

Astelehena 9

HITZALDIA

10:00. "Justizia unibertsala", Garbiñe Biurrunekin.

Armeria Eskolan.

ZINE-FORUMA

19:30. "El lado bueno de las cosas" pelikulararen emanaldia eta, jarraian, solasaldia. AGIFES-en "Zinea eta Osasuna" egitasmoan. Coliseoan.

Martitzena 10

ANTZERKIA

11:00 eta 15:00.

Debabarreneko eskolarteko XXXII. antzerki jardunaldiak: "Maiurta" (Los Galindo, Bartzelona). Untzagan.

BILERA

18:30. Sanjuanetan txosna jarriko duten eragileen arteko bilera. Deporren.

GURE ESKU DAGO

19:00. Bilera irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

IRAKURKETA-KLUBA

19:00. Gaztelerazko saioa: "El desierto de los tártaros" (Dino Buzzati). Portalean.

Eguaztena 11

ANTZERKIA

11:00 eta 15:00.

Debabarreneko eskolarteko XXXII. antzerki jardunaldiak: "Maiurta" (Los Galindo, Bartzelona). Untzagan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Entsegua. San Andres elizan.

DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua. **20:00.** Helduen entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa, 7).

HITZALDIA

19:30. "La vista es la vida", Poliklinika Gipuzkoako Mercedes Zabaleta oftalmologoarekin. Portalean

HITZALDIA

19:30. Egoera politikoari buruz, EAJ-ko Joseba Egibarrekin. Sarrera librea. Batzokian (Ego Gain, 1).

Eguena 12

HITZALDIA

18:00. "Bularreko minbizia-
ren prebentzioa". Portalean.

ODOLA ATERATZEA

18:30. Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen eskutik. Anbulatorioan.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrena. Portalean.

TAILERRA

19:00. "Auto-zaintzarako baliabideak: hipnosia eta gorputzaren kontzientzia", Defoibel-en eskutik. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Entsegua. San Andres elizan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IRATI, hillairen 9xan zortzi urte egingo dozuz-eta. Zure aitxitxa-amamaren partez.



Zorionak, OXEL, mutil haundi!!! Patxo potoluak famelixaren eta, batez be, Mararen partez.



Zorionak, CAROL Markina Dinis, lehen urtetxua egitterakuan. Muxu haundi bat, printzesa, ama, aitta eta famelixaren partez.



Zorionak, PERU!, astelehenian bi urte bete zittuan gure etxeko txikixak-eta. Patxo potolo-potolua famelixaren partez.




Zorionak, MIREN, hillairen 3an 9 urte bete zenduaz-eta. Ondo pasa bixar zure lehelengo jaunartzian. Famelixaren partez.




Zorionak, ZALOA!, atzo bi urte egin zenduaz-eta. Patxo potolua, printzesa, amatxo, aita eta aiton-amonaren partez.



Zorionak, JULENto!!! Bi urte bete dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IKER, bixar hitu urte beteko dozuz-eta. Famelixakuen eta, batez be, Oihan anaixaren partez.



Zorionak, EÑAUT, eguaztenian bost urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, IRATI, hillairen 1ian zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MANEX! Segi holan, inguruak pozten! Laztan bat famelixaren partez! Pa!



Zorionak, UNAI, haraifegun urtiak egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.

Erakusketak

Maiatzaren 2tik 31ra arte:

- Argizaiola Saria. (**Klub Deportiboan**)
- Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldea (**Ambigu eta Portalea tabernetan**)
- Manuel Vilanova-ren "Faces of the world" (**El Corte Inglesean**)

Maiatzaren 6tik 29ra arte:

- Jose Manuel Lucena (**Topalekuan**)
- Agustín Sagastiren "Arquitectura y tiempo" (**Portalean**)
- Koldo Badilloren "Del caos al laberinto" (**Portalean**)
- Oskar Gaskon. Ohorezko Saria 2015eko I. Ojanguren Lehiaketan (**Portalean**)

Maiatzaren 6tik 31ra arte:

- Gipuzkoa Nazioarteko Saria (**Untzagako jubilatuetxean**)



Zorionak, amama MARIA JESUS eta aitxitxa LUIS MARI, zuen 42. urteurrenien, gure kapitanean izatiagaittik. Maite zaittuegu. Urte askuan alkarrekin bizi gaitezen.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

7an: 19:45, 22:00

8an: 17:00(2 aretoan), 20:00

"Julietta"

Zuzendaria: Pedro Almodovar



(2 ARETOAN)

7an: 17:00, 19:45, 22:00

8an: 17:00(antzokian), 20:00

9an: 20:30

"Tini. El cambio de Violeta"

Zuzendaria: J. Pablo Buscarini



(ANTZOKIAN)

7an: 17:00(1 areto), 19:45, 22:30

8an: 17:00(1 aretoan), 20:00

9an: 20:30

"El olivo"

Zuzendaria: Iciar Bollain



(1 ARETOAN)

9an: 19:30

"El lado bueno de las cosas"

Zuzendaria: David O. Russell



1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Santo Domingo de la Calzadan. Ondo kokatua eta argitsua. Konpontzeke. Prezio onean. Tel. 699-960037.
- Pisua salgai Debako erdigunean. Bi kaletara ematen du. 3 logela, egongela eguzkitsua, jangela handia, sukalde berria, 2 komun, trastero eta terraza txikia. Leiho berriak kristal bikoitzarekin. Tel. 656-737198 eta 635-751970.

1.2. Errentan

- Ikasle batzuk pisu bat alokairuan hartunahi dugu Eibarren edo Ermuan. Tel. 608-827724 eta 677-808687.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 632-682005.
- Neska batek logela hartuko luke alokairuan. Tel. 943-203184.
- Pisua (edo logela) hartuko nuke alokairuan Eibarren. Lagun bakarrarentzako. Tel. 622-315458. Abraham.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai edo alokagai jubilazioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

3.2. Errentan

- Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-378463.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-463839.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-101991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, garbiketarako egin eta sukaldelaguntzaile jarduteko. Tel. 631-562380.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Ordutegi zabalak. Tel. 612-545143.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 695-701753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-064707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabalak. Tel. 612-245326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 633-808931.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita gauze ere) zaindu eta pegorak garbitzeko. Tel. 688-959575.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-740755.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, mendia garbitu eta ortuan jarduteko. Tel. 604-134961.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-709827.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-408771 eta 943-743347.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-376744.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, baita gauze ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 628-318570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-627696.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, kamarera jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-380843.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 660-184603.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile eta esteticienne jarduteko etxez-etxe. Tel. 662-423898.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-466742.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-304817.
- Neska eskaintzen da tabernan lan egiteko. Extra moduan edo lan berezietarako. Esperientzia. Oinarrizko euskara. Tel. 669-512815.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-995976.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-316113.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 672-442318.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-133431.
- Neska langilea eskaintzen da nagusiak zaindu (etxean edo ospitalean) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-925362.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-017974.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez garbiketarako lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-682005.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-509130.
- Eibarko neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta enkarguak eta garbiketarako lanak egiteko. Goizez edo orduka. Tel. 658-845081.

4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da astean zehar goizez umeak zaintzeko. Deitu arratsaldez. Tel. 637-012625.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Al-berto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko LP-ak eta diskoak erosten ditut. Tel. 688-624326.

Hitzaldia

“IKUSMENA BIZITZA DA. Miopia, hipermetropia eta astigmatismorako betaurrekoak eta lentillak ahaztu Excimer Laserrarekin”

Maiatzak 11
asteazkena

PORTALEA UDAL KULTUR ETXEA

EIBAR, 19:30. Sarrera doan.

“Teknologia berriein kirurgia pertsonalizatuak egiten ditugu, diagnosis eta ezaugarrien arabera”

Mercedes Zabaleta oftalmologoa tratamendurik berrienak gerturaten dizkigu, lentillak, betaurrekoak eta kataratak ahaztu ditzagun. Horrez gainera, glaukoma, oftalmologiako patologiarik garrantzitsuenetakoaren inguruan ere hitz egin digu.

Datorren maiatzaren 11n, asteazkena, Mercedes Zabaleta Poliklinika Gipuzkoako oftalmologoa hitzaldia eskainiko du Portalean, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Sarrera libre izango da, bete arte. Zabaletak katarata, miopia, hipermetropia eta astigmatismoari aurre egiteko tratamendu berrienak izango ditu hizpide, eta baita glaukoma ere, munduan itsutasuna eragiten duen bigarren gaitza, hain zuzen.

“Kristalinoa opaku bihurtzen denean gertatzen da katarata, eta nagusi egiten goazen heinean azaltzen da. Pazienteak ikusmena galtzen du pixkanaka. Ez du tratamendu medikurik eta kirurgiaren bidez kristalinoa atera eta lente garden batekin ordezkatzen da”, dio Zabaletak.

“Katarata ikusmena gutxitu eta bizimoduan traba eragiten duenean operatzen da. Ez dago itxaron beharrik kristalinoa erabat opaku egin arte, edo orain dela urte batzuk esaten zen moduan ‘katarata heldu arte’. Pazienteak molestia duenean egin behar da ebakuntza”, gehitu du oftalmologoa.

“Gaur egungo kirurgia anbulatorioa da eta ikusmen-errehabilitazio eroso eta azkarra dauka. Ebakuntza egitera datorren paziente bere kabuz bueltatzen da etxera”, Zabaletaren hitzetan. “Kirurgiaren eboluzioa iraultzailea izan da; 50. hamarkadan kristalino osoa kentzen zen, 70. hamarkadan, teknika estrakapsularren bitartez, katarataren muina soilik ateratzen zen, eta 90. hamarkadan, fakoemulsifikazio-tresnekin, lente bat jartzen da operatutako kristalinoaren zakuan eta beste lente bat begi barruan”, dio oftalmologoa.

BIZITZA NORMALA BEREHALA

“Katarataren ebakuntzak 10-15 minutu irauten du, eta berehala berreskuratzen da bizitza normala; jakina, hantura edo inflamazioa eragin dezaketen jarduerak (pisuak altxatu adibidez) ezingo dira berehala egin, baina ibili, telebista ikusi... ahalko du pazienteak”, nabarmendu du Zabaletak.

“Gaur egun miopia, hipermetropia, astigmatismoa eta presbizioa sendatzeko lente bifokal eta trifokalak ditugu; horrez gainera, “excimer” laserra deiturikoa ere erabiltzen dugu betaurrekoak edo lenti-



MERCEDES ZABALETA Policlínica Gipuzkoako OFTALMOLOGOA.

llak erabiltzen dituzten paziente gazteak operatzeko”, esan digu espezialistak.

“Teknologiak asko aurreratu dira, eta horri esker kirurgia pertsonalizatuak egin ditzakegu, diagnosis eta ezaugarrien arabera”. Mercedes Zabaletak mezu bat ere bidali nahi izan du, “pazienteei oftalmologoaren aholkuei kasu egitea gomendatuko nieke, interneten edo kalean entzuten dutenari jaramonik egin gabe”.

GLAUKOMA SASOIZ DIAGNOSTIKATZEAREN GARRANTZIA

Glaukoma da oftalmologiaren etsairik nagusienetakoa, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera. Glaukoma da, kataraten atzetik, munduan itsutasuna eragiten duen bigarren gaitza. Zabaletaren hitzetan, “glaukoma begi-globoaren presioa handitzerakoan gertatzen da, ikusmen-nerbioa kaltetuz. Begiaren tentsioa neurtuz eta pazientearen ikusmen-eremua begiratu antzeman daiteke”, dio Mercedes Zabaletak.

Horrez gainera, espezialistak sasoz egindako diagnosiaren garrantzia azpimarratu nahi izan du, “ez du sintomarik erakusten, eta beraz, diagnosi goiztiarra egin eta gaitzaren progresioa ekiditeko ezinbestekoa da probak egitea. Berandu diagnostikatzen bada ikusmen-nerbioan eragindako kaltea ezin da konpondu”.



I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

